

Kirola

Itsaso Pradera pilotariak paleta goma utzi du: “Ez dut ahaztuko lehenengo munduko txapela; bigarren bikote lez joanda irabazi genuen” > 13



JAIAK!

IURRETA

Kataluniako erreferendumari babesak erakutsi diote kaleetan

Giroa bero dago Katalunian. Erreferenduma oztopatzeko asmoz, eguaztenean Generalitateko 15 kargudun atxilotu zituen Guardia Zibilak, eta horren aurrean herritarrek emandako erantzunak irudi itzelak utzi ditu. Durangaldean ere hainbat herritar irten ziren kalera, operazioa salatu eta prozesua bultzatzen dabiltzanei elkartasuna agertzeko. > 5

“*Jarrera neurrigabe honegaz, Gobernuak independentista gehiago sortzen ari da*”



Francesc Fàbregas | El Vallenceko zuzendaria > 14

Eten barik hazten

‘Handia’ filma aurkeztuko dute domekan Zinemaldian. Eneko Sagardoy aktore durangarra filmeko protagonistetako bat da. Karrika antzerki taldean lehen pausoak eman zituen aktorearen ibilbide profesionalean film hau mugarria izan da. > 10-11

DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas
Matrikula zabalik
Urriaren 4ra arte aukera duzu izena emateko. Sartu gure web orrian eta egin eskaria.
72.36€ ikasturte osoa
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45



Durango > 4

Mari Carmen Rodriguez
erraketistak 102 urte egin ditu

Durango > 4

Txosnen lekuarengatik kezka agertu dute Astarloa egoitzakoek

Abadiño > 7

Sortzen Eguna ospatuko dute Matienako gazteek, bihar

Zaldibar > 6

Ospitaleko obraren atzerapena dela-eta azalpenak eman dituzte

Herririk herri

► **ERREPORTAJEA** M Onaindia

Ekintzaile sozialen motibazio eta sentipenetan arakatzeko erreportaje sortaren bigarren atal honetan, gaztaroa atzean utzi eta bizi erronka berrietan murgilduta daudenak dira protagonista. Maite Inguntza Renteria Gure Esku Dago kidea (49 urte, Zornotza), eskola jantokietan bertakoa eta sasoikoa bultzatzen duen Berton Bertokoa taldeko Alex Azpiri Robles atxondarra (40 urte, Bilbo), eta Alain Bravo Valentin Gurutze Gorriko mendi-erreskate taldeko ardura-duna (37 urte, Elorrio) elkartu dira kazetariagaz.

Zerk bultzatu zintuzteten zuen dinamiketan hasiera?

Alain: Alpinista naiz eta bide horretatik sartu nintzen Gurutze Gorrian. Duela 7 urte Kirgistanera joan ginenean, istripu potolo bat eduki genuen; ni ez nintzen zauritu, baina ondokoa bai, eta ez nekien ezer soro-penaren inguruan. Horregatik, Gurutze Gorrian hasi eta gero mendiko erreskate taldean sartu nintzen.

Alex: Kasualitatez sartu nintzen guraso elkartean. Ordu-ra arte zeudenak joan ziren, eta erreleboa behar zen. Lau-bost urte izango dira. Eskola jantokien arazoan harira, *Gure platera, gure aukera* dinamikan sartu nintzen, eta hortik sortu genuen Berton Bertokoa taldea. Hainbat eskolotako gurasoek kezka bera geneukan.

Maite: Uste dut 2013an hasi gineela. 'Gazta zati bat' dokumentala ikusi nuen, eta ideia polita iruditu zitzaidan. Gero, lagun pare batek berba egin zidaten hemen zerbait mugitzeko asmoz, Katalunia eta Eskoziako mugimenduei eskapatzen ez uzteko. Eta, egia esan, zerbaitean sinisten dudanean ez dakit ezetz esaten.

Pertsonalki, zer onura ekartzen dizue?

Alain: Liburuetatik aparte, bizitzaz ikasteko modu bat da. Guru-

“Liburuetatik aparte, bizitzaz ikasteko modu bat da militantzia”

Ekintzaile edo boluntario sozialen motibazioez berba egin dute Inguntzak, Azpirik eta Bravok



Ezkerretik hasita, Inguntza, Azpiri eta Bravo.

tze Gorrian asebetetzen gaituen gehigarri bat daukagu: desagertuta dagoen pertsona bat zure laguntzagatik etxera bueltatzean, sekulako indarra hartzen dugu. Ohera joatean, lanak balio izan duela pentsatzen dut.

Alex: Bidean egiten dituzun hartu-emanak oso aberasgarriak dira. Jendea tentsiodun momentuetan ezagutzen duzu, denbora asko inbertitzen duzu eurekin... Askok ikasten duzu eta lagun berriak egin ere bai.

Maite: Nire gurasoak ikastolen mugimenduan sartuta ibili ziren, eta oso barneratuta daukat mugimendu sozialetan parte hartu behar dela. Zornotzan talde majoa gaude, 10-15 bat batzen gara astero. Herri dinamika lez

poza ematen du. Jendea ezagutzen duzu, eta ikusten duzu jende askok egiten duela lan zure antzera. Horrelakoetan hasten den jendeak zeozer berezia badaukala uste dut. Oso aberasgarria da.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko irailaren 22a
14. urtea - 690. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martínez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gendiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Bravo, erreskate batean laguntzen.



Inguntza, Gure Esku Dagoko aurkezpen batean.

Alain: Nire bikotekidea ere taldekoa da; beraz, ondo ulertzen dugu elkar eta sarritan batera joaten gara irteeretara, momentuz ez baitugu umerik. Ekainean ezkondu ginen eta Tanzania joan ginen GKE bategaz. Sanitario lez joan behar genuen herrixka batera, baina gobernu aldaketaren eraginez, eskola eta umezurtzen etxe batera joan ginen laguntzera.

Maite: Zuena bizioa da! (barrez).

Zailtasunen gainetik, lanean jarduten duzue. Zergatik?

Alain: Bakoitzak jasotzen duen aberastasunagatik. Bizitzan dena ez da dirua. Gauza ez-materialak dira garrantzitsuak, pertsonak eta hartu-emanak.

Maite: Bete egiten zaituelako, azken batean. Filosofia kooperatibista hori gure lurrekoa dela uste dut; ikastola margotzen joan behar bada, bazoaz.

Alex: Nik uste, gehiago edo gutxiago, denok sentitzen dugula besteei laguntzeko nahia, ezta?

Alain: Egia da jendeak arraro begiratzen dizula batzuetan. 'Ez duzu dirurik atera behar hemendik?' galdetzen dute.

Maite: Batzuek lotsa sentitzen dute, inoiz ez direlako horrelako istorio batean egon. Nik uste dut jendea asko kezkatzen dela, baina gero gutxi mugitzen dela.

Alex: Nire zalantzak ditut. Alde batetik ados nago, baina igual ez da mugitzen guk espero dugun parametroetan. Zenbat futbol talde daude? Zenbat mendi talde? Uste dut denok dugula arren bat barruan. Ar hori une batzuetan denok batera askatzea lortzen badugu, hor jaioko da bel-darra edo tximeleta.

Gaztaroko nostalgiarik baduzue?

Alex: Begirale izan nintzen, Gazte Asanbladan eta jaiak antolatzen ere ibili nintzen... Gertatzen dena da, orain, umeekin, lehentasunak aldatzen direla. Baina oso aberasgarria da; eurekin gosaltzea, eurekin eguna ematea, itzela da. Horregatik akaso, ez daukat nostalgiarik.

Maite: Niri, orain, gaztetan baino ilusio handiagoa egiten dit, kontzienteago naizelako. Beste ama batzuek esaten didate beti nabilela bueltaka, baina nik hori sentitu eta egin behar dut.

Kontaidazue zuen esperientzietan bizitako une polit edo hunkigarrietako bat.

Maite: Nik hementxe, Durango-Iruña giza-katean emozionatuta negarrez bizi izan nuena. Zelan irten zen hain ondo? Euforia partekatu bat izan zen.

Alain: Egun horretan Gurutze Gorriagaz egon nintzen, eta Kanpazarren ume bat jausi zen. 4x4 bat sartu genuen, eta Duran-

“*Ondo antolatzen saiatu behar duzu; familiaren laguntza ere beharrezkoa da*”

“*Batzarretara joatea izaten da astunena, umeak etxean bakarrik uztea*”

goraino etorri ginen. Bestalde, sei-zazpi egun markatuta daukat une berezi lez. Ume batzuk Gorbeian, elurretan, erreskaturtu genituenekoa, adibidez. Jendea asko eskertzen du; mezuak bidaltzen dizkigute, eta pastelak ere bai batzuetan!

Alex: Ekainean jaiak egin genuen, guraso elkartekoak lanean ibili ginen. Gauean afaria egin genuen, eta nekatuta egon arren zoriontsu geunden. Denok batera argazki bat atera genuen. Urtebeteko lana amaitu dela eta Gurutze Gorriaren beharrik izan ez dugula ikustea ona izan zen! (barrez). Hara! Bilbon Gure Esku Dagoren ekitaldia ere egon zen egun horretan.



Berton Bertokoa taldekoek Pirritx eta Porrotxen babesu jaso dute.

Ez da erraza izaten eguneroko ardurekin bateratzea, eta gutxiago guraso izanda...

Maite: Niretzat batzarretara joatea izaten da astunena, umeak etxean bakarrik uztea. Ume bi daukat eta, gainera, banatuta

nago; beraz, batzuetan gaitza izaten da denbora ateratzea. Baina gustura nabil.

Alex: Hiru seme txiki daukat, 6, 4 eta 2 urtekoak. Etxean, bikotekidea eta biok nahiko aktiboak gara, eta hori lortzeko ondo an-

tolatzen saiatu behar duzu; familiaren laguntza ere beharrezkoa izaten da. Egunak 24 ordu ditu eta ezinezkoa da denera ailegatzea. Akaso ezin duzu lagunekin egon; baina, militantzian lagun berriak ere egiten dituzu.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko
basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194

102 urtegez bizirik dagoen emakume erraketista durangarra

Mari Tere Rodriguez Mugarra durangarrak 102 urte bete zituen atzo



Rodriguez Mugarra Astarloa erresidentzian, atzo.

DURANGO Markel Onaindia 100 urte bueltara ailegaten diren pertsonen hori lortzeko zein sekretu dagoen galdetzen zaie normalean. 102 urte bete zituen, atzo, Mari Tere Rodriguez Mugarra durangarrak, eta sekretua “inbidiarik ez edukitzea” da bere arabera. Baina, egia esan, inbidia ematen du 102 urtetara zelari heldu den ikusteak; gorputzez autonomia apur bat badu, eta burua argi du. Esaterako, ondo akordatzeko da Bartzelonako eta Madrileko pilotalekuan erraketista

izan zeneko denboraz. Astarloa erresidentzian bere urtemuga ospatu zuten atzo, eta etxekoekin jatetxe batera joan zen gero.

XX. mendearen lehen erdian arrakasta eduki zuten erraketan jokatzeko zuten emakumeek. Profesionalak ziren, eta Bartzelona zein Madrilez gainera, Mexikon ere ibili ziren. Durangaldeko zenbait neska bazeuden pilotarien koadroan. Bartzelonako Condal pilotalekuan aritu zuten, batez ere, Rodriguez Mugarra, baina, zoritxarrez, ibilbide laburra eduki zuten. Izan ere,

debutatu eta hiru urtera lesioa izan zuen hankan; erraketa eskegi behar izan zuen, ondorioz.

Gero, Bartzelonan geratu eta dendari izan zen jubilatuta arte. “Udalak postu bat eman zidan salmentarako. Galtzak, galtzontzilloak, kamisetak, bainujantzioak... saltzen nituen”. Katalan ere sentitzen da, “una miqueta”, dioenez. Durangora arazo familiar bategatik bueltatu zen, 81 urtegez. Erresidentzian gustura dago, eta Jesuitak ikastetxe-ko umeei irria ateratzen diote, asteroko bisita berezian.

Txosnen lekuagatik kezka agertu dute Astarloa egoitzakoek

Zaratak nagusiengan eragin dezakeela diote

DURANGO M.O.

Aurtengo San Fausto jaietan Kurutzia kalean ipiniko dute Txosnagunea, udalak eta Txosna batzordeak akordioa lortu ostean. Inguruko asko, osterara, ez daude ados. Auzokide eta merkatari batzuek keza azaldu dute, eta orain Astarloa nagusien erresidentziako ordezkariak agertu dute kezka. Gaueko zaratak bertan bizi diren 48 nagusiengan eduki dezakeen eraginak arduratzen ditu, Alazne Landeta zuzendariak kontatu duenez. Izan ere, logelek Kurutzia kalea ematen dute.

Horrez aparte, zuzendariak azaldu du pertsona zaharretako bat astean birritan ambulanzian

joaten dela ospitalera, 07:00etan, eta arduratuta galdetu du ea zer gertatuko den horregaz. Duela bost urte ambulanzia batek arazoak eduki zituen kalean sartzeko.

Alazne Landeta:

“Udaletxera gutuna bidali dugu, baina ez digute erantzun”

Egoeraren inguruko informazioa eskatu dute. “Udaletxera gutuna bidali dugu, baina ez digute erantzunik jaso”, esan du Landetak.



Astarloa erresidentziako logelek Kurutzia kalea ematen dute.

Trenbide zaharreko espazioak “etorkizuna baldintzatuko du”

EH Bilduk batzarra egin du erronkak adosteko

DURANGO M.O.

Legegintzaldiaren erdira ailegatuta, orain arteko balantzea egin eta aurrera begirako erronkak marraztu ditu Durangoko EH Bilduk, Pinondo Etxean joan zen astean garatutako batzar zabalean. Trenbide zaharreko lurren gaia lehen-tasunezko gaia dela uste dute batzarreko parte-hartzaileek. “Durangoren etorkizuna baldintzatuko du”, euren ustez. “Gaur egungo proiektuaren aurrean alternatibak eraiki beharra nahitaezkoa dela” adostu zuten bileran, alderdiak prentsa oharrean azaldu duenez.

‘Era’ prozesuan

Etorkizuneko helburuekin jarraituta, aipatzekoa da Duran-

goko EH Bildu eraberritzeko lanean dagoela *Era* prozesuaren bitartez, eta horri “garrantzia berezia” eman diote kideek, oharrean arabera.

Hartu-emanek

Bestalde, auzoak aktibatzea eta herritarren partaidetza sustatzea ere erronka lez markatu dituzte batzarrean parte hartu zuten lagunek.

Orain arteko balantzea egiterako orduan, alderdiaren arabera “oso positiboki” baloratu zen orain arte herritarrekin izandako hartu-emanak, besteak beste auzolanaren eta auzo batzarren bidez garatu dutena. Aurrerantzean ere norabide horretan jarraitu gura dute EH Bildukoek.

Airearen kalitatea “ona edo onargarria” da

Udalak datuen inguruko erantzukizuna eskatu du

DURANGO M.O.

Azkenaldian zabalduak diren xenen harira, “erantzukizuna eta datuen erabilera egokia” eskatu ditu Durangoko Udalak, airearen kalitatearen inguruko informazioekin lotuta. Interneten argitaratu izan diren datu ez-ofizialei ez die baliorik eman —Herriaren Eskubideko Julian Riosek zabaldu ditu batzuk—, eta bai Eusko Jaurlaritzaren neurketei.

Udalak gogoratu du 2004tik airearen kalitatea hobetzeko apustua egin duela, eta datuek hobera egin dutela ordutik. Eusko Jaurlaritzak San Roken dagoen neurgailuko datuak helarazten dizkio udalari; datu horien arabera, urteko ia egun guztietan (%99,7) airearen kalitatea “ona edo onargarria” da, 2004an bi egunetik behin ze-

nean soilik. Hala ere, Munduko Osasun Erakundearen indizeei jarraituz gero, emaitzak ez dira take horren onak.

Azken hileetan keza ugari egon dira sare sozialetan airea-

Eusko Jaurlaritzak San Roken dagoen neurgailuko datuak helarazten dizkio Durangoko Udalari

ren hatsagatik, eta jende ugari kezkatuta agertu da, osasunean eragin ote dezakeenagatik. Horrela, Internet bidez sinadura bilketa bat hasi zuten, airea hobetzeko neurriak eskatzeko. Dagoeneko 2.500 herritarrek sinatu dute eskakizuna.

Desfile batez dator Boboliren urteurrena

DURANGO M.O.

Boboli dendak 15 urte bete ditu aurtengoa, eta urtemuga hori moda desfile batez ospatuko dute. Bihar muntatuko dute pasarela, Astarloa kalean, 18:00etan.

Desfilera doazenez, Boboliren udazkeneko bilduma berria ezagutzeko aukera eduki-

Desfilera doazenez, Boboliren udazkeneko bilduma ezagutzeko aukera edukiko dute

ko dute. Umeentzako arropak eskaintzen dituzte dendan, eta arlo horretako errerentzietako bat da Durangon. Ainhoa ile-apaindegiaren eta Arte floral zein Oskarbi dendan laguntza dute desfilea atontzeko.

Kataluniako prozesuari babesa erakusteko, kalera atera dira

Hamar herritan erreferendumaren aldeko elkarretaratzeak burutu dituzte

DURANGALDEA M. Onaindia
Kataluniako gobernuak urriaren lehenerako deitutako erreferendumak ehunka lagun bultzada jaso du. Eguaztenean Espainiako gobernuak Generalitateko 15 kargudunen atxiloteta agindu eta gero, tentsioak gora egin du Katalunian, eta mobilizazio herritarren irudi ikaragarriak ikusi dira egunotan hango kaleetan. Prozesu independentista aurrera eramaten dabilzanei babesa erakusteko eta Rajoyren operazioa salatzen, Durangaldeko hainbat herritar kalera atera ziren eguaztenean.

Abadiñon, Atxondon, Berriren, Elorrion, Mallabian, Mañarian, Otxandion, Zaldibarran eta Zornotzan EH Bilduk deitu zuen mobilizazioetara. Durangon herritar talde bat izan zen bultzatzaile; aipagarria da EH Bilduz gainera Herriaren Eskubidea eta Podemos-Ahal Duguko kideak ere

batu zirela protestara. Bestalde, Elorrion osoko bilkura berezia landu zuten, katalanen egoera gai bakartzat hartuta.

‘El Vallenc’-en bisitan
Espainiako gobernuak erreferendum oztotatzeko abiatutako kanpainak hedabideak eta inprentak ere jo ditu. Lehenengo arakatutako hedabideetako bat *EL Vallenc* izan zen, Valls eskualdeko tokiko astekaria, eta haren zuzendari Francesc Fàbregas auzipetu zuten -10. orrialdean irakur daiteke berari eginiko elkarrizketa-. Bera, Associació Catalana de Premsa Comarcal (ACPC) eskualdeetako hedabideen elkartearen presidentea da. Egoera hori kontuan hartuta, Tokikomeko ordezkariak El Vallenc aldizkaria bisitatu dute asteon, hedabideari eta zuzendariari babesa erakusteko. Aizait Artolazabal Tokikomeko zuzendaria, Jone Guenetxea presidentea -ANBOTOk zuzendaria

ere bada-, eta Iban Arantzabal Goienako zuzendaria egon dira Fàbregaseguz. “Adierazpen askatasuna zalantzan jarri da azken egunotan Kataluniako hedabideetan izandako gertakariak. Onartezintzat jotzen dugu adierazpen askatasuna ez errespetatzea”, esan du Guenetxeak.



Durangon jende ugari batu zen udaletxeko plazan.



Hainbat elorriar, plazan egindako elkarretaratzean.

Beldur Barik lehiaketa martxan da Durangaldean

Azaroaren 13ra arte aurkeztu ahalko dira lanak



Beldur Barik lehiaketan gazte ugariak parte hartzen dute.

DURANGALDEA M.O.

Gazteen artean parekidetasuna eta errespetua bultzatzeko sortu zen Beldur Barik izeneko lehiaketa, eta aurtengo edizioa martxan dago jadanik. Azaroaren 13ra bitartean, balio horiek jorratzen dituzten sormen lanak aurkeztu ahalko dituzte gazteek. Hori bai, bideo formatuan entregatzea eskatu dute, Youtube edo Vimeo plataformetara igota. Eskualdeko hainbat udal daude antolatzaileen artean.

18 urtetik beherakoen eta 26 urtera artekoen artean sailkatuko dituzte partaideak, eta sariak egongo dira. Kategoria bakoitzean hiruna emango dituzte, 300 eta 500 euroren artekoak. Informazio gehiago beldurbarik.org webean topatu daiteke.

Euskara eta gizarte arloko diru-laguntzak prest daude

DURANGALDEA M.Z.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak euskara eta gizarte arloko diru-laguntzen deialdiak argitaratu berri ditu. Euskararen atalean, komertzioetan euskarazko errotuluak ipintzea eta euskara sustatzeko ekintzak egitea finantzatuko dute.

Gizarte arloan, aniztasun funtzionala dutenekin lan egiten duten elkarteek eta garapen lankidetzan dabilzanean jaso ahalko dute laguntza.

Erretzeari uzteko gonbita, 9 saiotan

DURANGALDEA M.Z.

Durangaldeko Amankomunazgoaren Adikzioen Prebentzioarako Zerbitzuak erretzeari uzteko kurtso bi antolatu ditu. Bederatzina saio izango dituzte ikastaroak, eta aditu batek gidatuko ditu, Durangon eta Elorrion. Urriaren eta azaroaren eskainiko dituzte.

Durangoko Askatasun Etorbidean dagoen bulegoan, 94 620 05 20 telefonora deituta edo prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidera email bat bidalita apuntatu daiteke.

ALBERDI
HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Astelehenean, irailaren 25ean, 19:00etan, batzar informatiboa eskainiko dute udaletxean EH Bilduren gobernu taldeko ordezkariak. Ospitale psikiatrikoko lursailen obraren atzerapenari buruzko azalpenak emango dituzte batzar horretan. Izan ere, uztailetik geldidute ospitaleko 3.448 metro koadroko lursaila herritarrentzako berdegune moduan atontzeko lanak.

Uztailetik ez dute aurrerapausorik eman ospitale psikiatrikoan egitekoak diren lanetan

Herritarrei obraren egoeraren berri eman gura dietela azaldu du Arantza Baigorri alkateak. Aurreratu du, obrari loturiko hainbat erabakiri dagokienez, Zaldibarko Udalak eta Osakidetza dauzkaten desadostasunak direla lanen atzerapena ekarri duten arrazoiak, obra aurrera eramaterakoan administrazio biek irizpide desberdinak dituztela.

Asteleheneko batzar hori antolatu eta informazioa eskai-

Ospitaleko obraren atzerapenaz azalpenak emango ditu udalak

Batzar informatibora deitu du EH Bilduk, astelehenean, 19:00etan, udaletxean



Ospitale psikiatrikoko lursailaren zati bat herritarren erabilerarako zabaltzea da lanen helburua.

niaz, zaldibartarrak lasaitu gura dituztela adierazi du Baigorri alkateak. Izan ere, azaldu duenez, egiazkoak ez diren hainbat zurrumurru dabilta kalean, eta jendeak benetako arrazoiak ezagutzea gura dute.

Bestalde, alkateak azpimarratu du ulertzen duela jendea jakin-minez egotea, “izan ere,

aurreikusita zegoenaren arabera, berdegune hori disfrutatzen

Herritarrei obraren egoeraren berri eman gura dietela azaldu du Arantza Baigorri alkateak

egon beharko ginateteke dagoeneko, eta lanek ez dute momentuz, amaitzeko itxuririk”.

Osakidetzaaren eskutik, 2016an eskuratu zuen Zaldibarko Udalak ospitaleko 3.448 metro koadroko lursailaren lagapena, eta aurtengo ekainean ekin diete lanei. Esan bezala, baina, uztailetik geldidute lanak.

Ekonomia feministari buruzko tailerra

ZALDIBAR I. E.
Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeei zuzenduta eskaintzen dituen Ahalduzko ikastaroen bigarren ikasturtea abiatuko dute, datorren astean. Irailaren 27an, 18:00etatik 20:00etara burutuko dute tailerra. Ekonomia feminista izango da lehenengo ikastaroaren gaia, eta Emagin elkarteak Patricia Artxankok eskainiko du.

Aurreko saio guztiak bezala, euskaraz burutuko dute, eta doakoa izango da. Hala ere, plaza mugatuak direnez, aurrez izena eman beharra dago, udaletxean, liburutegian edo berdintasuna@zaldibar.eus helbidera idatzita, irailaren 25a baino lehen. Ikastaroaren hartzaileek hala eskatuz gero, bestalde, haurtzaindegi zerbitzua ere eskainiko dute.

Emakume zaldibartarren interesekoak izan daitezkeen askotariko gaiak jorratzeko antolatzen ditu Berdintasun Sailak Ahalduzko ikastarook.

Azkorbebeitia-Sorgin bikotea onenen artean

Abadiñarra hirugarren postuan sailkatu zen

ATXONDO M. Zuazubiskar
Duela asteburu bi hirugarren postua eskuratu zuten Jose Angel Azkorbebeitiak eta Sorgin txakurrak Bizkaiko Artzain-txakur Txapelketan, eta postu bera eskuratu zuten, joan zen zapatuan, Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketan.

Asteburuan Axpen jokaturako 51. Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketan Antonio Alustizak eta Jai txakurrak eraman zuten txapela, Aresora. 341 puntugaz, Alustiza-Jai bikotea izan zen garaile.

Bigarren postua azken urteetan Axpen irabazlea izan

den Enrike Mendiguren orozkoarrak lortu zuen, Riki Bi txakurrak. Hirugarren postua, aldiz, Jose Angel Azkorbebeitia abadiñarrak lortu zuen, Sorgin txakurrak. Azkorbebeitia-Sorgin bikoteak 305 puntu lortu zituen, bigarren sailkatuak baino 21 puntu gutxiago.

Axpeko txapelketan Azkorbebeitia ez zen Durangaldeko ordezkari bakarra izan. Jose Urien abadiñarrak ere parte hartu zuen. Urienek eta Xarpa txakurrak hamaikagarren postuan amaitu zuten Axpen jokaturako Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketan.



Jose Angel Azkorbebeitia, ezkerretik hasita laugarrena.

Plan orokorra herritarrekin lantzeko programa, abian

IZURITZA J.D.
Aurtengo urte hasierako epai batek bertan behera utzi zuen 2010etik honako bidea zerraman Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Prozedura berriz hasi dute. Lehenengo urratsetako bat herritarrek informatzeko zein euren ekarpenak jasotzeko bideak zehaz-

Urte hasierako epai batek Plana bertan behera utzi ostean, berriro abiatu dute prozesua

tuko dituen programa diseinatzea da. Pauso horregaz hasia aho batez onartu zuten EH Bilduk eta EAJk atzo egindako udalbatzarrean. Orain, programa horretan jasotzen diren pausoak gauzatzeari ekingo diote udal arduradunek. Programak jarraitu beharreko faseak zehazten ditu, prozesua aurrera eramango duen udaleko talde motore bat sortzea, esaterako.



‘Elorrioko Gida’ kaleratu du Elorrioko Udalak.

Elkarteak ezagutarazteko gida kaleratu berri dute

‘Ikastaroen Gida’ ere kaleratu du udalak

ELORRIO M. Zuazubiskar
Herrian dauden elkarteek tokia egin eta hauek ezagutarazteko ‘Elkarteen Gida’ kaleratu berri du Elorrioko Udalak herriko elkarteen laguntzagaz.

Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, gida honen bidez, elkarteetako kideek egiten duten lana nabarmendu gura izan dute. Eta, horregatik, elkarte bakoitzari bere historia, ezagutzea... helarazteko aukera eman diete. “Kanpotik datozenek beti nabarmentzen dute Elorrioko dagoen elkarte-sarea,

eta egia da Elorrioko dauden elkarte eta eragile ugariak harro sentiarazten gaituztela. Udaletik eragile horiekin ahalik eta harremanik estuena izaten saiatzen gara, eta gida hau beste pauso bat da”, azpimarratu du Idoia Buruaga alkateak.

Horrez gain, ‘Ikastaroen Gida’ ere kaleratu dutela jakitera eman dute udaleko kideek. Gida honetan, udalak antolatzen dituen ikastarook argitaratzeaz gain, herriko elkarteek antolatzen dituzten ikastarook ere argitaratu dituzte.

Abadiño Sex zer den azaltzeko hitzordua

Irailaren 25ean, 17:00etan, Pino plazan batuko dira

ABADIÑO I. E.

Gazte abadiñarrentzako sexologia eta harremanen inguruko aholkularitza zerbitzua eza-gutzera emango dute irailaren 25ean, 17:00etatik 19:00etara, Pino plazan. Aurreko urteetan zerbitzua baliatu duten gazteek emango dituzte azalpenak.

Aurreko urteetan bezala, ikasturte honetan ere sexualitate eta berdintasun arloko es-

pezialista talde batek eskainiko du Abadiño Sex zerbitzua, Pino plazako lokalean. Astelehenean, 17:00etatik 19:00etara egongo dira lokal horretan. Tailerak eta bideo-forumak egingo dituzte bertan, sexualitateari buruzko mitoak hautsi eta berdintasunaren aldeko balioak zabaltzeko asmoz. Gazteei zuzendutako zerbitzua izanagatik, helduek ere jo dezakete bertara.

Hiri Antolamendurako Planari buruzko saioak

ABADIÑO I. E.

Herriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerakinaren inguruan azalpenak emateko berbaldiak antolatu ditu Abadiño Udalak. Asteon, Txaporta kultur etxean egin dute lehenengo, eta beste bi eskainiko dituzte: irailaren 25ean, 18:30ean, Errota kultur etxean bata; eta urriaren 16an, Zelaietako Txanportan bestea.

Herritarrek proiektu horren berri izatea "oso garrantzitsua" dela esan du Jose Luis Navarro alkateak, "bertan baitaude jasota herriaren bilakaera urbanistikorako dauden aukerak".

Udalaren webgunean espediente osoa dago ikusgai, eta aipaturiko berbaldi horien osagarri, proiektua idatzi duten teknikariek biltzeko aukera ere izango dute herritarrek.

Matienan elkartuko dira gazteak, bihar, Sortzen Eguna ospatzeko

Solasaldia, bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte gazteek, besteak beste



Bihar, 12:00etan elkartuko dira Sortzen Eguneko ekintzak abiatzeko.

ABADIÑO Itsaso Esteban *Egi bihurtzeko gazteon ametsa, sortu dezagun gaztetxea* lemagaz, Sortzen Eguna ospatuko dute, bihar, Abadiñon. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatu duen egitaraua, baina, gaur hasiko da. *Gure kabuz ala hil* dokumentala emango dute, 22:30ean, karpan.

Bihar, 12:00etan elkartuko dira Sortzen Eguneko ekintzak abiatzeko. Hasteko, Durango, Zaldibar eta Arrasateko gazte-

txeetako kideekin *Gaztetxea, gazteon ametsa* solasaldia egingo dute, 12:30ean.

Eguerditik goizaldera arteko plana izango dute gazteek, Traña-Matienan, bihar. Bazkari herrikoian elkartuko dira, 14:15ean; bingo musikala egingo dute, 16:00etan; karaokea, 16:45ean; trikipoteoa 18:30ean; eta kontzertuak, 23:00etan. The Van berriztarrak, Skakeitan donostiarrak eta Baske Street Boys arituko dira, kontzertuan.

Ibai Zabala, Sugar Perez, Ekaitz Herrera eta Asier Ota- duy abadiñarrek osatzen dute Baske Street Boys, eta duela bi aste Matienako Gazte Asanbladari eskainitako kanta publikatu berri dute. Zabala abeslariak azaldu duenez, pozik daude biharko jaiaren parte har- tzeagatik: "Sortzen Egunean gazte-beterano figura honetatik gure alea jarri ahal izatea gauza polita da". Kontzertuen ostean, gauerdia arte iraungo du jaiak.

Alokairu merkeagoagaz, Errekondo berriz lehiaketara

500ekoa barik, 400 euroko alokairua jarri dute

MAÑARIA

Joseba Derteano Errekondo tabernaren kudeaketa esleitzeko bigarren saiakera egingo du udalak. Lehenengoak huts egin zuen proposamen bakarria aurkeztu zelako, eta bera epez kanpo.

Baldintza orrietan aldaketa bi egin dituzte, hautagaiak erakartzeko. Alokairua 100 euro merketu dute: 500 euro barik,

400 euro izango da. Bestetik, hasierako hiru hileetan alokairua erdira jaitzi dute: 200 euro.

Aldaketa horiekin aho batez onartu zuten dokumentua martitzenean egindako udalbatzarrean. Aldizkari ofizialean publikatzen denetik aurrera hamabost egun izango dira proposamenak lehiaketara aurkezteko.



Errekondo udalaren jabetzako taberna da.

Itoginak amaitzeko lanak, Herri Eskolan


BERRIZ M.Z.

Datozen egunetan Learreta-Markina ikastetxean dauden itogin arazoak konponduko dituztela jakitera eman zuen Berrizko Udalak azken osoko bilkuran. Udalak jakinarazi zuenez, lanek 17.000 euroko balioa dute eta Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza erabalko dute obra horiek ordaintzeko.


anboto.org
MUGIKORREAN




Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



Sagarrak kaxetan batzen eta traktorean garraiatzen ziharduten martitzenean.



Goikoetxe, Txalaka eta Gezamina lako barietateak batu dituzte.

Iazko sagar kopurua bikoiztea espero dute Uxarte sagardotegian

Egunotan sagarrak batzen dabilta; bilketa aurreratatu dute barietate batzuetan

ZORNOTZA J.D. Uxarte sagardotegiko arduradunek 25.000 kilo sagar inguru ba-

tu zituzten iaz, bost hektareatik gorako lursailean. Aurten kopuru hori "bikoiztea" itxaroten du-

te Juan Antonio Zamallo Uxarteko arduradunaren berbetan. "Kalkulurik baikorrenak ere

gaindituko direla uste dugu". Izan ere, hezetasunaren eraginez sagar gehiago eta tamaina handiagokoak daude.

Dagoeneko sagarrak batzen ari dira. Normalean, irailaren amaieran hasten den sagar bilketa 15 bat egunez aurreratatu behar izan dute aurten. Udaberriko loraldi goiztiarra da horren arrazoia. Horrela,

helduta dauden sagar barietateak batzen buru-belarri lanean dabilta egunotan: Goikoetxe, Txalaka eta Gezamina motako sagarrak, batez ere.

Beste barietate batzuk oraindino berde daude, "egon behar duten moduan", eta heldu arte sagarrondoetan jarraituko dute. "Berde badago ez da batu behar. Hobe da itxarotea eta puntuan dagoenean jasotzea", azaldu du Zamalloak.

Kantitatea eta kalitatea

Sagar kantitatea bezain garrantzitsua da kalitatea. Sagarrak "sano" daudela dirudi eta hori albiste ona da. Edozelan ere, azterketa analitikoak erakutsiko dituzte benetako ezaugarriak.

Uzta honetatik irtengo den sagardoaren zapoaren ezaugarriak aurreratzea ere ez da kontu erraza. "Gradu gutxiagoa edo arintxoagoa izan daiteke, baina ezin da seguru esan oraindik", azaldu du Uxarteko arduradunak.

Bizikleta elektrikoetan ibiltzeko aukera

ZORNOTZA J.D. Zornotzako Udalak hainbat jarduera antolatu ditu Europako Mugikortasunaren Asategaz bat egiteko. Esaterako, bizikletak, bizikleta elektrikoak eta tandemak mailegatzeko aukera eskainiko dute. Horrez gainera, pedalen bidez funtzionatzen duten karts zirkuitu bat egokituko dute. Herritarrak mugikortasun jasagarriaren inguruan sensibilizatzeko antzezlan bat ere eskainiko dute.

Parte hartzeko interesa duenak 17:00etatik 20:00etara izango du horretarako aukera, Gudari kalean. Kale hori itxita egongo da 09:00etatik 22:00etara Ibaizabal eta San Migel artean. Ibilgailuak Zelaietako aparkalekura bakarrik sartu ahal izango dira.

Elkartasunez betetako motor hotsa domekan

ZORNOTZA J.D. Ogenbarrenako jaiak dira asteburuan. Moto kontzentrazioa da hitzorduetako bat eta han batutako dirua La Otra Mirada elkarteari laguntzeko baliatuko dute. Eguerdiko bazkarian paella izango da plater nagusia. Moto ibilbideko parte-hartzaileentzako izen-ematea 8 euro da, eta menuaz gainera opari bana jasoko dute. Gainerakoentzat prezioa 5 euro da. Izen-ematea 10:00etan egin daiteke, moto ibilbideari ekin aurretik.

Eguerdian Ogenbarrenatik poteoan arituko dira txistularien laguntzagaz. Bazkalostean, berriz, herri kirol erakustaldiak egongo dira. Askotariko erregaluak zotz eginda amaituko dute domekako ekitaldia.

Udaletxean geotermia sistema erabiliko dute aire-girotzerako

Urteko aurrezpen ekonomikoa %83koa izango da; energia aurreztea %56koa

IURRETA Aitziber Basauri Aire-girotzea geotermia sistema bidez jarriko dute Iurretako udaletxean. Horretarako lanak Telur enpresaren ardura izango dira, eta Iurretako Udalak 76.000 euroko inbertsioa egingo du. Hile biko epea dute lanak amaitzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dute. "Jasangarritasunaren eta energia eraginkorraren alde apustu" egin du udalak, eta horren barruan kokatzen dira lanok.

Truke geometrikoan oinarritutako sistema baten bidez hornituko dute eraikina. Sistema horrek lur-azpia erabiliko du energia hartzeko, kontsumoa "nabarmen" murriztuz, bai berogailuetan, bai hozte sisteman". Horrela azaldu dute

ohar baten bitartez. Emandako datuen arabera, udalak, urtean, %83ko aurrezte-ekonomikoa izango du horretara; energia aurreztea, berriz, %56koa izango

da, eta karbono dioxido isurketak %73 gutxituko dira. Girotu beharreko azalera hiru solairuk osatzen dute. Guztira, 465 metro koadro dira.



Geotermia sistema bidezko aire-girotzerako lanak hasi dituzte.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian

Anboto Komunikabideak @anboto

16 urtetik gorakoentzako bertso eskolak urrian hasiko du bere bidea

12 eta 16 urtera artekoek, berriz, sorkuntza tailerren parte hartu ahaliko dute

OTXANDIO Joseba Derteano Otxandio herri kantuzalea da tradizioz eta urritik aurrera herri bertsolaria ere bihurtu dadin lan egingo dute, bertso eskola sortuta. Bizkaiko Bertsolari Elkartearen bidez gorpuztu den proiektuak adin guztietako otxandiarrei bertsolaritza sarkontzeko aukera eskainiko die, modu batera edo bestera.

Orain arte Arabako Bertsolari Elkartearen eraginpean egon da Otxandio eta ikasturte honetatik aurrera Bizkaiko elkartearen esparrura pasatuko da. Aitor Esteban bertsolaria bertan dabil eta berak hartuko du 16 urtetik gorako bertso eskolaren ardura. Otxandion bizi da orain

Uribe Kostakoa den arren, eta eskarmentu handia du bertso eskolak gidatzen. "Bertsolaritza sustatzea eta euskalzaletasuna bertsoaren bidez garatzea" dute helburu, Estebanen berbetan.

Momentuz, zortzi lagunek eman dute izena. Klaseak astean behin izango dira, martitzen arratsaldetan, urriaren 3tik aurrera. Seguruenik, Gaztetxean eskainiko dituzte. "Batzuek bertso sorkuntzagaz harremana izan dute inoiz. Beste batzuk, berriz, zerotik abiatuko dira", azaldu du.

Bertso eskolarako izen-ematea honako helbide elektronikoaren bidez egin daiteke: gorrirre@gmail.com.

16 urtera arteko eskaintza 12 eta 16 urtera arteko nerabeek herritik kanpoko ikastetxeetan ikasten dute. Haiei ere bertsolaritza munduan herrian bertan murgiltzeko aukera eskainiko diete sorkuntza tailer baten bidez. Astean behin ludotekan eskainiko dute.

Bosgarren eta seigarren mailako gazteek, orain arte moduan, eskolan jarraituko dute bertsolaritza lotuta. Arabatik beharrean, Bizkaitik kudeatuko dutela da aldaketa. "Umeen guraso batzuek ere galdetu digute ea euren seme-alabentzat materialik badagoen. Hori aztertuko dugu, jolas moduan bertsolaritza landu ahal dezaten".

Aste Kulturala prestatu dute jubilatuek

GARAI M. O.

San Migel eguna ospatuko dute datorren barikuan, eta nagusien elkarteak bere izena daramanez, Aste Kulturala antolatzen du egunaren bueltan. Karta jokoak, tortilla txapelketa eta bazkaria egingo dituzte datorren astean zehar.

Martitzenean hasiko dira ekintzak, 17:30ean, briska txapelketagaz. San Migel egunez, 29an, bazkarian batuko dira nagusiak. Herriko tabernan eman behar da izena, 27a baino lehen, 29 euroren truke.

Enpresa bateko suteak ez du zauriturik eragin

MALLABIA J.D.

Eguazten arratsaldean sutea gertatu zen Mallabiko Hierros Servando izeneko enpresan. Gertaerak ez zuen zauriturik eragin. Iurretako suhiltzaileak ez ezik, Eibar eta Basauriko unitateak ere laguntzera joan ziren sua gehiago zabaldu ez zedin. Suak sortutako kea eskualdeko beste leku batzuetatik ere ikusi ahal izan zen, izan zuen dimentsioen isla.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ BASTERRA
EAJ



Kirol bizipoza!

Egun hauetan asko dira bueltan datozen ekintzak. Eskola egunak itzultzen dira, eta halan, eskolarekin ume eta gazteen kirola ere itzultzen da.

Larunbatean gazteen futbol partidu bat ikustera joan nintzen. Tamalgarría izan zen ikustea heldu batzuen jarrera agresiboa. Berdin da nork jotzen duen partidua, jarrera norbere pertsonarekin baitoa, baina tristea da gazteen lagunarteko partidu batean entrenatzaile zein gurasoek esaten dituzten astakeriak entzutea.

Hori al da gazteei emon nahi diegun eredu? Askok dira urtean zehar ikusten dituzten partiduak, bai futbola, bai saskibaloia, eta zeharo haserrarazten naute gurasoek zein entrenatzaileek batzuetan arbitroari edo gazteei esaten dizkieten astakeriek.

Eskola kirola hastear dagoe, izan dezagun zentzua eta gogora dezagun umeak ditugula aurrean jolastan eta garrantzitsuena ez dela irabaztea, nahiz eta hori izan beti helburu. Garrantzitsuena errespetua eta kirola dira, garbitasunez jokatuta eta norbere akatsak onartu norbere jokaldi onak txalotzen ditugun bezala. Kirola ez da iskanbilarako tresna, ez da oihuka estresa kentzeko tresna. Horretarako, badago noren-gana joan.

Kirola bizipoza izan behar da, gazte eta umeen arteko erlazioak garatu eta talde lana egiten ikasteko bidea. Gazteak estimatu eta motibatu egin behar dira, ez 'energumeno' baten moduan garrasika hasi jokalariei gauzak ondo ateratzen ez zaizkielako. Ikus dezagun kirola zentzunez eta animatu ditugun gure seme-alaba edo ilobak inor iraindu gabe.



Abiapuntu moduan, Manex Agirre eta Miren Amuriza bertsolariarekin bertso-poteoa antolatu zuten joan zen barikuan.

DURANGALDEA ASTEON

Hipo-pilates, ikastaro berria urritik aurrera

MALLABIA > Urritik aurrera pilotalekuan hasiko dituzten ikastaroetako bat lehenengoz eskainiko dute: Hipo-pilates. Hipo-presiboak eta pilates ariketak uztartzen dituen ikastaroa da. Zumba eta txirrin-bike (bizikleta estatiko batean) dira beste ikastaro batzuk. Izen-ematea Mallabiko frontoian egin daiteke.

Herritarren Arretarako Zerbitzua ireki dute

IURRETA > Asteleheneetik zabalik dago Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) hartzen duen bulego berria. Ordutegi zabalagoa du, 08:30etik 14:00etara. Arreta zerbitzua ez ezik, Gizarte Zerbitzuak eta Bake Epaitegia hartzen ditu berriztutako espazio horrek. Udaltzaingoak leku berean jarraituko du.

Goienkaleko jaiak ospatuko dituzte

DURANGO > Jaien barruan, Luhartzek erromeria eskainiko du gaur, 22:00etan. Bihar paella txapelketa hasiko dute eguerdian, eta Angelman sindromearen Durangoko elkartearen aldeko zumba solidarioa, 17:30ean. Gaez Life and Beat DJak berotuko du giroa. Domekan tortilla txapelketa egingo dute, besteak beste.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902



 **Kultura**

“Pelikula honetatik aktore oso desberdin bat izaten irten naiz”

Sagardoy protagonistetako bat duen ‘Handia’ filma estreinatuko dute asteburuan Zinemaldian

> BERBAZ Jone Guenetxea

‘Handia’ filma ikusi ondoren, ematen duen lehenengo elkarriketarako hitzordua jarri du Eneko Sagardoygaz (Durango, 1994). Zinemaldiko sail ofizialean lehiatuko den filmak Altzoko Handiaren istorioa baino askoz gehiago kontatzen du. Proiektuan sinesten duenaren segurtasunagaz hitz egiten du aktore durangarrak. Filmazio gogorraren ostean, fokuen eta flashen momentua heldu da. Asteburuan Donostiako Zinemaldian estreinatuko da eta sail ofizialean lehiatuko da.



Eneko Sagardoy eta Joseba Usabiaga dira filmeko protagonistak.

Bi pelikulen artean erabaki zaila hartu zenuen.

‘Handia’-ri baietz esateko beste proiektu bati ezetz esan nion. Une hori transformazio momentu moduan bizi izan nuen. Bel-dur handiko asteak izan ziren. Baina, batez ere, kolokan jarri nuen benetan zerk mugitzen ninduen. Istorio batek, soldata batek, famak... Zerk mugitzen zaitu? Ez dut erabaki eta bizi estilo bat markatu izanaren sentsazioirik. Momentu hartan hartu nuen erabaki bat izan zen. Era berean, une zail bat izan zen, lagundu didana gero beste erabaki batzuk hartzen. Ezetz esaten eta nigan asko pentsatzen ikasi nuen. Horrek, artistikoki, gaur egun bizi garen negozio honetan balio handia du. Zaila da horretaz konturatzeta, eta ausarta izan behar duzu. Ziur hartutako erabaki bat izan zen, zer egingo genuen zehazki jakin barik, berme asko nituelako, bai zuzendariengatik, bai lan taldearengatik... Fokua hortxe jarri nuen.

Beste filma, hasiera batean, oihartzun mediatikora bideratuagoa egongo zela pentsa zitekeen. Orain ematen du horrek buelta eman duela.

Ez dit hainbeste ardura zenbat pertsonak ikasiko duten nire ize-na. Orain dela urte eta erdi hau ez nizuke esango, baina orain bai. Kontatu gura genuen istorioa kontatzea da nik gura dudana, eta heldu gura nuen lekuetara heldu naizela sentitzea. Eta espero ez nuen leku batzuetara heltzea ere bai, hori ere gertatu baita. Bat-batean arrakasta eta oihartzun mediatikoa oso bigarren mailan ikusten ditut. Egia da pelikula Zinemaldian lehiatzeak edo nazioarteko banatzai-



Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendu dute filma.

le garrantzitsu batek zabaltzeak eragin handia izango duela, baina pelikula ona bada, ona da.

Grabazio zaila izan da?

Oso zaila izan da. Alde batetik, ia egunero, lokalizazio aldaketak izan ditugu asteleheneratik zaturara. Euskal Herri osoan eta Huescan egon gara. Hamaika ordu filmatu eta gero bidaiek eragiten duten nekea itzela da. Beste aldetik, pertsonaiaren lan psikologikoa dago. Pertsonaia oso ezohikoa izatera, hainbat momentu eta egoera nigandik oso urrun daude. Agian gogoratu gura ez nituen nire esperientzia pertsonaletan arakatu behar izan dut momentu batzuetan. Baina asko lagundu didate pertsonaia hezurmamitzerakoan. Bestalde, pelikula baten protagonistetako bat izatea ere ardu-
ra handia da. Diru asko da, jende askoren lana dago tartean. Joseba Usabiagaren eta nire ardu-

ra obraren zerbitzura egotea da, baina asmatu egin beharra dago.

Zelan konpondu zarete filmeko lan taldean?

Ardura guztia berehala leundu zen zuzendariari esker. Aitor Arregi, Jon Garaño eta Moriaritiko talde osoagaz maiteminduta nago. Zorroztasun handia dute, baina, era berean, badakite

“*‘Handia’ filma oso neure sentitu dut. Hori ez da lan guztiekin pasatzen*”

askatasunari bere tartea ematen. Gauzak oso argi dituzte, baina testuak eta egoerak kolokan jarri jolasten uzten dituzte. Horren arabera, gero aldaketak egiten dituzte. Oso gustuko dudana nahasketa bat da. Horri duten umiltasuna gehitzen badiozu, askatasun eta giro lasaia sortzen da zabalik lan egiteko. Aktore batek lan egiteko izan dezakeen baldintzarik onena da hori. Horrez gain, hizkuntza poetiko itzela dute eta zine lengoaiaren maneiu handia. Jakintsuak dira. Hemeroteca bat dute buruan eta erreferentzia pila bat ematen dizkizute. Askok ikasi dut zineari buruz ere. Horren guztiaren konplize izatea zorte handia da.

Pelikula hau Altzoko handiaren istorioa baino gehiago da. Zer transmititzen du?

Bi anaiaren arteko adiskidetasun istorioa bat da, garai oso berezi batean. Erregimen zaharrak eta garai berriek talka egiten dute eta hori islatuko da, bai kanpo faktoreetan, bai pertsonaiengan. Bestalde, gai nagusia aldaketa da. Ea benetan egoera berrietara egokitzea den daukagun gaitasun bat edo zikoizkeria bat. Zein ezberdintasun dago erresignatu eta egokitu artean? Era berean, beste plano batean bi anaia osagarri izateaz berba egiten du. Anaia batek besteak ez duena du. Denok sentitu gaitetzake islatuta. *Obabakoaken* Bernardo Atxagak dio mugimendurik barik ezin dela bizitzarik egon. Eta aldaketa mugimendua da.

Erraldoia irudikatzea teknikoki zaila izan da?

Bai. Plano bakoitza azterketa bat zen, muga handi bat dagoelako. Teknikoki oso mugatuta egon naiz. Kontua izan da horri buelta ematea. Pertsonaia oso estatiko eta contenido bat sortu dut. Saad Kaiche deituriko lagun aljeriarra nire ordezkaria izan da. Eta borroka etengabe bat izan da. Efektu berezien enpresatik ere esan ziguten hobe zela dena momentuan egitea, postproduzioan barik. Beraz, teknika batzuk erabili ditugu, ispilu lan moduan.

Pelikula ikusi duzu. Zer sentsazio duzu?

Lehenengoz ikusi nuenean oso urduri nengoen. Talde guztiagaz batera ikusi nuen. Oso hun-

Eneko Sagardoy Mujika
Karrika antzerki taldean hasi zen aktore. Goenkale (ETB1) teleailean jardun du, besteak beste. Asteburuan ‘Handia’ filmagaz Zinemaldia ezagutuko du

kigarria izan zen. Plano bakoitzean informazio gehiago zeterkidan, gogoratzen nuelako zein egunetan grabatu genuen, zer gertatu zen... Negar asko egin nuen istorioak hunkitzen naue-lako, eta pantaila handian nire burua hainbeste pertsonen lanagaz batera ikusten nuelako. Kredituak negar batean pasatu nituen. Hainbeste jende, eta denak lagunak. Aktore moduan honek asko suposatu du. Baina, pertsonalki, ez da topikoa esatea eragin handia izan duela nigan, nengoen garaian gainera. Pelikula honetatik aktore oso desberdin bat izaten irten naiz, asko ikasi dudalako. Baina pertsona eta sortzaile moduan, nik bada-
kit beste lan batzuk beste modu batean ikusten ditudala. Hori egunerokotasunean ikusten dut beste lan guztietan. Hori da eraman dezakedan gauzarik onena.

Postproduzioan sorpresarik hartu duzu?

Edizioan aldaketa asko sartu dituzte eta momentu askotan ha-



rritu ere egin naiz. Nire burua analizatzen bukatu eta gero konaturatu nintzen ez nuela lana bere osotasunean ikusi. Bigarrenez ikusita, oraindik gehiago gustatu zait. Esaten didatenez, hori oso arraroa da. Behin baino gehiagotan ikusi beharreko pelikula bat da.

Zinemaldiaren atarian, zein gorputzaldi duzu?

Pelikula ikusi arte oso urduri eta beldur handiagaz egon naiz. Orain, pelikula ikusita, gogo itzela dut. Zuzendariei ere esan nien moduan, pelikula hau defendatzeko ez dut inongo arazorik. Horregaz ez dut esan gura ulertzen ez dudarik pertsona batzuei ez gustatzea. Baina, oso neure sentitu dut. Botereagaz sentitzen naiz Zinemaldian egoteko eta pelikula hau defendatuz harro egoteko. Lan guztiekin ez da pasatzen.

Zinemaldiko sail ofizialean lehiatuko zarete. Sorpresarik eman dezake?



Saad Kaiche aljeriarra da Sagardoyren ordezkoa filmeko hainbat momentutan.

Zergatiz ez? 18 pelikula daude sail ofizialean. Ez ditut beste pelikulak ikusi, baina film honek ez du inor hotz utziko. Eta sariena bultzada handia da, baina pelikula eginda dago, eta sa-

riak ez du lan hori aldatuko. Beste guztia ongietorriak diren opariak dira.

Une honetan, zein leku du antzerkiak zure bizitzan?

Antzerkian hasi nintzen eta antzerkira bueltatzea behar bat da. Ni orain antzerkira bueltatzea erabaki kontziente bat da. Beste lan batzuei ezetz esan diet. Eta antzerkian bereziki oso sortzaile eta bizirik sentitzen naizelako da, oso nire esku. Antzerkiak badi sakratutasun bat. Ez da inoiz berdin errepikatuko. Adrenalina bat eta 'hil ala biziko' gauza bat du, asko gustatzen zaidana. Egia da gaur egun oso pobrea dela, eta geroz eta zailagoa da antzerkitik bizitzea.

ANBOTOren 500. aleko jaialdian Platerueneko oholtzan antzezlan bat interpretatzeaz gain, gidoia ere idatzi zenuen. Sortzaile moduan ikusten duzu zure burua? Gidoilari edo zuzendari ikus zaitzakegu?

Bide horretan nago. Asko gustatzen zait. Gainera, baditut nire gauza propioak kontatzeko. Aktore naizenean zuzendari baten zerbitzura jartzen naiz, beste aktoreak bezala, eta niri pasatuta-kontu gauza batzuk ere badoaz hor-

Baina, zu autore bazara, zuzendari edo idazle lez, zuri gertatutako gauzak kontatzeko aukera duzu. Eta kontatzen duzunean hainbeste jenderi hainbeste eragingo dio... Hori baino prozesu hunkigarriagorik ez dakit bada-goen. Gogo handia daukat, baina diru asko behar da.

Momentu honetan antzerki munduan buru-belarri diharduzu. Zein proiektu dituzu esku artean?

Zinemaldian *Errementariren* kartela eta trailerra aurkeztuko dira. Gainera, filmak Sitgesen parte hartuko du. *Obabakoak* eta *Heriotza bikoitza* antzezlanekin nabil. Azken lan hau Miren Gaztañagak eta biok oholtza gainean egiten dugun antzerki eta ikus-entzunezko pieza teatrala da. Jon Ander Alonsok zuzentzen du eta azaroaren erdian estreinatuko dugu. Denon arteko sorkuntza izan da, zerotik hasita. Horrek Karrikako hasierako sentsazioetara eraman nau, antzerki bizi-bizira.

Abendura arteko programazio kulturala prest dute Berrizen

Berrizko Kultur Etxean antolatu duten egitaraua aurkeztu dute udaletxean egindako agerraldian

> EGITARAUA Itsaso Esteban Irailaren 28an hasita abendura arte Berrizko Kultur Etxeak egingo duen eskaintza kulturalaren berri eman dute, asteon. Egitarau horren barruan euren lana erakutsiko duten Ander Lipus, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak eta Sergio Moreno marrazkilaria, Bego Madariaga eta Karmen Amezua zinegotziak eta Seve Alava kultura teknikaria batu ziren martitzenean udaletxean egin zuten aurkezpena.

Nebrashka abiapuntu

Musikagaz ekingo diote ikasturte berriari Berrizko Kultur Etxean: irailaren 28an bere lehenengo kontzertua eskainiko du Nebrashka Durangaldeko taldeak, eta Gontzal Mendibil 30ean arituko da. Mendibilen kontzertu hori Mikel Deunaren baselizan antolatu dute, Bego Madariaga zinegotziaren berbetan, “kultur etxetik kanpoko espazioetara ere” zabaldu gura dutelako kultur eskaintza.

Oparoa da musikazaleek ikasturteko lehen hiruhilekoan Berrizko Kultur Etxean topatuko duten zuzeneko eskaintza: Aire ahizpak, Aitor Etxebarria, Jardin de la Croix, Astralia, eta Empty Files izango dira entzungai. Kultur etxeak argitarara eman duen programazioan agertzen ez den arren, gainera, Anarik ere joko du Berrizko Kultur Etxean. Urriaren 21ean izango da emanaldi hori.

Hozkailua eta Ez Dok Hiru

Ander Lipus, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak gonbidatu zituzten martitzeneko prentsaurrekoan parte hartzera. Izan ere, bizi den herri horretako Kultur Etxean eskainiko du Ander Lipus aktoreak, urriaren 28an, *Hozkailua* obra. Unai Iturriaga durangarrak idatzirik obra da, gaztetan *punky*ak izan ziren hiru lagunaren istorioa kontatzen duena. Lipusek azaldu du, Berrizko Kultur Etxean egin zituztela obra honen hasierako entseguak, eta oso eskertuta dago bertako arduradunek “erakusten duten sentsibilitateagatik”. Formatu handiko *Francoren bilobari gutuna* sortu eta gero, formatu txikiagoko obra sortu dute: *Hozkailua*.

Aldiz, euren ohiko bikote formatuagaz barik, muntaia handiagaz etorriko dira Ez

Dok Hiru taldeko Patxo Telleria eta Mikel Martinez Berrizera. Abenduaren 10ean eskainiko dute *Ez Dok Hiru: euskal musikaren benetako istorioa* obra. “Euskal kantagintzari errepaso eroa”, egingo diote, Telleriaren berbetan. Ikusleak dibertitzea ez ezik, euskal kantutegian “dugun altxor handiaz” ohartaraztea gura dute bilbotarrek.



Mikel Martinez, Patxo Telleria eta Ander Lipus aktoreak, eta Sergio Moreno marrazkilaria gonbidatu dituzte aurkezpena.

Karmen Amezua zinegotziak aurkezpenean nabarmendu zuenez, “azken urteetan egiten saiatu garen bezala, euskal kultura eta euskara bultzatzeko

helburuagaz prestatuak da egitaraua. Besteak beste, prentsaurrekoan parte hartu zuen Sergio Moreno berriztarraren erakusketa bat ere hartuko du

kultur etxeak. Grafitoagaz egiten dituen margolan errealistak erakutsiko ditu, lehenengoz, urriaren 20tik azaroaren 12ra arteko erakusketan.

“Irrikan gaude abesti berrien aurrean jendeak daukan erreakzioa ikusteko”

Irailaren 28an, Berrizko Kultur Etxean eskainiko du Nebrashka taldeak lehenengo kontzertua



Yoko Out taldean ibilitako Durangaldeko musikariak dira Nebrashka sortu duten bostak.

Alerta, Tuesday Evenings, Sermonds, Sybaris, Yoko Out... taldeetan ibilitako esperientzia handiko bost musikariek sortu duzue Nebrashka. Zelan eta noiz sortu zen proiektu berri hau?

Ia gehienak Yoko Out-en azken etapan elkarregaz geunden, eta Yoko Out-en geldialdiaren ondorioz beste bide batzuk esploratzen hasi ginen. Urtebete inguru ibili ginen horrela, Nebrashkari forma eman arte.

Lehenengo kontzertua da Berrizko Kultur Etxekoa. Zer gorputzaldi duzue?

Hasieratik dakigu Nebrashka zuzeneko gutxi emango dituen proiektua dela. Bat izan ezik, taldeko partaide guztiak gurasoak gara eta zaila izaten da betebeharrak eta aisialdia uztartzea. Beraz, gogotsu gaude kontzertua eskaintzeko; entseguetan sasoi onean gaude la ikusi dugu eta irrikan gau-

de abesti eta proiektu berri honen aurrean jendeak daukan erreakzioa ikusteko.

Uda aurretik aurkeztu zenuzuten bi katez gain, zer errepertoriok osatuko du kontzertuko kanta zerrenda? Singleko bi abesti horiez gain, baditugu beste 8 abesti berri ere, eta horrez gain, gure bi talde kutunen bertsio bi ere egingo ditugu. Baina zeintzuk diren jakin gura dutenek kontzertura etorri beharko dute. Guztira, 12 edo 13 abesti izango dira, ordubete inguruko emanaldia.

‘Bizimina’ eta ‘Animaliak gara’ kantak dira momentuz entzun ahal izan ditugunak. El-karrizketa batean esan zenuenez, Yoko Out-etik Nebrashkarako “trantsizioko kantak” dira bi horiek. Izan ere, estilo aldaketa bat egin duzue aurreko taldetik Ne-

brashkara. Zer norabidetan egin duzue aldaketa hori?

Yoko Out-etik ezagutzen gaituztenek agian *shock* bat jasan go dute abesti berriak entzutean (barrez). Orain serio jarrita: etapa berri honetan folk doinuak alde batera utzi ditugu eta rock & rollean murgildu gara. Kanta potenteak dira, zenbaitetan gogorak, baina, beti ahots melodia batez apainduak.

Kantakera, gitarrekin egiten dituzuen elkarrizketak eta letra landuak dira Nebrashkaren ezaugarrietako batzuk. Egiten duzuen musikaren zer ezaugarri nabarmenduko zenukete zuek?

Egia da, bai, letrei garrantzi handia ematen diegula, eta jendea horretaz ohartzea asko pozten gaituen zerbait da. Bestalde, aurrekoak ez bezala, esan genezake kasu honetan taldea izan dela gure ezauga-

rrietara egokitu dena, eta ez alderantziz. Hemen bakoitzak dakiguna eta gura dugun moduan egiten dugu, eta sortuz joan diren abestiak horretara moldatu dira. Oso naturala da egiten dugun musika, naturala ez gatazkiolako molde edo estilo bati lotu. Kanta naturalak eta zuzenak dira.

Lehenengo diskoa grabatzeko asmoa daukazu?

Hori izango da gure helburuetako bat, gutxinaka-gutxinaka diskoa grabatzea. Bestalde, taldea ezagutzera emateko hiruzpalau kontzertu eskaintzea ere gura dugu.

20 urte inguru daramatzazue musika egiten. Arratsalde osoa gitarragaz eta bateriagaz esperimendatzen eman zezakeen gazte hark zelan bizi du musika talde bateko partaide izatea bi hamarkada geroago? Hasierako zer gustatuko litzazue berreskuratzea? Heldutasunak zer onura dakar?

Galdera ederra, eta erantzun zaila. Hasieran geneukan freskotasun puntu hori, bapatekotasun hori... hori adinagaz badoa eta ezin da berreskuratzea. Bestalde, orain mundu hau hobeto ezagutzen dugu, eta baliabide gehiago ditugu. Musika lagun onak eman dizkigu, momentu politak eta txarrak... Baina denak dauka bere zergatia, denak dauka bere momentua. Bizitza bide bat da eta ez genuke atzera bueltatu gura.

JAIAK!

IURRETA
2017ko IRAILA

IURRETA. Irailaren 28tik Urriaren 1era



*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*



Iurreta
Eleizateko Udala

IURRETAKO JAIEN EGITARAUA

Irailak 17, domeka

Argazki Rallya on line.

Hartu zure argazki-kamera, zure mugikorra edo zure tableta eta bidaliezazkiguzua jaietako argazki politenak, dibertigarrienak, interesgarrienak, ...
Gaia: Iurretako Jaiak · Lanak aurkezteko epea, urriaren 1era arte · Lanak aurkezteko helbidea: "kultur-etxea@iurreta.eus" · Parte-hartzaile bakoitzak 2 argazki aurkeztu ditzake. · Saria: 50€koa izango da. · Irabazlearen izena, urriaren 4an argitaratuko da udaleko web orrian. · Aurkeztutako lanak urriaren 9tik aurrera ikusgai egongo dira Ibarretxe kultur etxean.

9:00 Ahari Iurreta zikloturista martxa.

11:00 Beldur barik gunea Askondon.

11:00 La Otra Mirada gunea Askondon.

11:00 Iurretako Herri lasterketa familiarra. Askondon.

11:00 (Txupeteak - Txikiak) 2017-2009. 340 metro (Arineketan).

11:15 (Prebenjamin - Benjamin - Alebin) 2008-2005. 900 metro (Arineketan).

11:30 (Haur - Kadete - Gazteak) 2004-2000. 1.100 metro (Arineketan).

11:30 (Senior eta Beteranoak) 1999 eta Aurrekoak. 3.300 metro (Ibili-Arineketan).

11:30 (Senior eta Beteranoak) 1997 eta aurrekoak. 5.500 metro (Arineketan).

12:30 Umeentzako motor lasterketa

Irailak 20, eguaztena

15:00 Booktuberboom kedada Mattin Ceberio booktuberragaz. (14-18 urtekoentzako) Bibliotekan.

Irailak 22, barikua

17:00 Gaztetxoentzako Kirol Gimkana. Frontoian eta Orobiogoitia Institutuan.

18:30 Zunba.

18:30 Grafiti erakusketa eta tailerra Dantzari auzunean

19:00 Antzerkia Ibarretxen "Estoy rara". Bromas aparte taldearen eskutik (Gaztelaniaz)

20:00 Tortilla txapelketaren hasiera. Kaskoan zehar. (Partaide bakoitzak bere osagarriak eta tresneria ekarri behar ditu)

21:00 Tortillen aurkezpena.

Irailak 23, zapatua

8:30 Iurretako VIII. Mendi Martxa.

Bi ibilbide egongo dira:

• **Laburra** (umeentzat) 14km eta + 655m-ko gainbehera positiboa.

• **Luzea** 23,3km eta +135m-ko gainbehera positiboa. Izen-emateak www.kirolprobak.com atarian egin beharko dira irailaren 1etik 21era (biak barne) 10€tan. Egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 12€tan. Informazio guztia: www.zaldaimenditaldea.org helbidean

12:30 Marmitako lehiaketa kaskoan.

14:30 Kazolen aurkezpena.

16:00 Maiztegiko umeen herri kirol erakustaldia. Olaburu pilotalekuko probalekuan.

17:00 Maiztegiko umeen euskal dantzak. Plazan.

17:30 - 20:30 Abentura parkea. Rokodromoa, Tirolina, Kajan dorrea, Ekilibrio tailerra. Plazan, euria eginez gero Maiztegiko frontoian.

18:00 Nagusientzako Bingo-Tonbola. Askondon. Jarraian txokolatada.

18:00 Asto probak. Gonbitez.

20:00 Mariachiak. "Puro Relajo" taldearen eskutik, Askondon.

21:00 Folk kontzertua: "Folketan" taldeagaz.

Jarraian Erromeria "Ezten Giro!" taldeagaz.

Irailak 24, domeka

11:00 Gazteen gunea Andaparapen.

Durungaldeko ezpata-dantzari eguna.

12:00 Ezpata-dantzarien kalejira, plazan hasita.

Ondoren, ezpata-dantza eta soka dantza, plazan.

14:30 ezpata-dantzarien bazkaria Askondon.

12:30 Albondiga txapelketa plazan (Partaide bakoitzak bere osagarriak eta tresneria ekarri behar ditu)

14:30 Albondigen aurkezpena:

Sariak:

1. Otzara eder bat

2. Bi ardo botila

3. Ardo botila bat

16:00 - 20:00 umeen parkea, puzgarriak, plazan. Euria eginez gero Maiztegiko frontoian.

18:00 Asto probak. Gonbitez.

19:30 Oihan Vega Askondon

Irailak 27, eguaztena

19:00 Nesken Gomazko Paleta Zirkuitua, "MPB" Saria.

Irailak 28, eguna

SAN MIGEL BEZPERA

12:00 Montoitik txapligoak

12:05 Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta brindisa

Ondoren kalejira dultzainero, erraldoi eta buru handiek alaiturik.

14:30 Herriko Nagusien bazkaria Askondon, jarraian erromeria Uribesalgo Soinujoleagaz.

Ondoren, dantza lehiaketa (Izen-ematea irailaren 18tik 22ra Nagusien Etxean)

14:30 Gazte bazkaria plazan.

18:00 Ohiturazko Doniel-Atxa jasotzea.

Jarraian dantzarien azken entsegua.

22:00 Erromeria Fan & Go taldeagaz.

Irailak 29, barikua

SAN MIGEL EGUNA

10:30 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.

11:00 Meza nagusia.

11:45 Dantzariak.

12:30 Igel txapelketa.

17:00 Pirritx, Porrotx eta Mari Motots plazan. Dohainik. (Euria eginez gero Maiztegiko frontoian)

19:00 Dantzari dantza eta neskek egindako **Soka dantza.**

22:00 Dantzaldia Askondon. **EKHY** taldeagaz.

22:00 Bertsolariak frontoian Gai Jartzaila: Josu Goikoetxea. Bertsolariak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Igor Elortza, Jon Maia eta Unai Iturriaga.

23:30 Kontzertuak: **Nevadah, Willis Drumond eta Bad Sound System.**

Irailak 30, zapatua

MOZORRO EGUNA - ZIRKUA

12:30 Poteoa

14:30 Herri bazkaria Askondon. Jarraian bingo txapelketa.

17:30 Maiztegiko umeen zirku ikuskizuna.

Ostean, elektro txaranga "EONIAN" taldearen eskutik.

19:00 Hilan aldeko meza.

20:00 Erromeria "LUHARTZ" taldeagaz.

22:00 "Lekeitioko deabruak" ikuskizuna.

Ondoren "LUHARTZ" taldearen erromeriak jarraituko du.

2:00 Ainhoa DJ-a.

Urriak 1, domeka

ERROSARIO EGUNA

10:00 - 14:00 XVIII Nekazaritza eta Artisau Azoka. Andaparapen.

10:30 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.

11:00 Meza nagusia.

11:45 Dantzariak.

12:30 Herri kirol ikuskizuna.

12:30 Txanpi txapelketa (Partaide bakoitzak bere osagarriak eta tresneria ekarri behar ditu).

14:30 Txanpien aurkezpena. Epailak: Olaia Elgezua (Arrigorri jatetxeko sukaldaria) eta Zigor Iturrieta (Txoriene programako aurkezle eta sukaldaria)

Sariak:
1. Otzara eder bat
2. Bi ardo botila
3. Ardo botila bat

16:30 Bizikleta Martxa.

18:30 Dantza saioa. Talde gonbidatua: Zangotzako dantza taldea.

Iurretako dantzariak Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza **Ondoren,** jaietako errifen zozketa

20:30 Herri afaria "Arantzak eta Pantxok" alaiturik

22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz **Amaitzeko,** erromeriak gauerdia arte jarraituko du

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUA ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrialdea, 6
48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com



IURRETAUTO

MEKANIKA-KONPONKETA
ELEKTRONIKA OROKORKI

Maspe kalea, 18
48215 IURRETA
Tel.: 946 817 030
Fax: 946 202 668
iurretauto@euskalnet.net

Ondo pasa San Migeletan!

Ingurukoak errespetatuz gozatu!



Gazteen egitaraua indartu dute aurtengo jaietan

Olaia Elgezuak eta Zigor Iturrietak epaile lanak egingo dituzte urriaren 1eko Txanpi lehiaketan

> JAIK Maialen Zuazubiskar Jaiak ofizialki San Migel bezperan Montoitik jaurtitako txupinazoagaz hasiko dituzten arren, dagoneko jai-giroan murgilduta daude iurretarrak.

Aurtengoan, gainera, ume zein gazteei begira indartutako egitaraua aurkitu dezakete Iurrerata doazenek.

“Gazteek jaietan ekintza gehiago gura zituztela erakutsi zuten, eta, horregatik, egitarau oparoago bat izango dute aurtent”, adierazi zuten Iurretako Gazte Asanbladako kideek hilaren 12an herriko plazan egin zuten prentsaurrekoan.

Bestalde, Zorione Fundazuri udaleko ordezkariak nabarmendu zuen, IU Gazte programaren bitartez, herriko gazteek jaietarako zenbait ekintza antolatu zituztela.

Esaterako, gaur herriko kirol elkarten eskutik kirol ginkana izango dute, eta bihar, Kimuak Aisialdi Elkartearen bitartez, abentura parkea egongo da herriko plazan. Irailaren 24an, berriz, gazteen gunea eta umeen parkea egongo dira.

Gastronomia lehiaketa

Aurtengoan ere, urtero lez, gastronomia lehiaketa bi izango

Gazteentzat kirol ginkana eta abentura parkea egongo dira

Gastronomia lehiaketa bi egongo dira San Migel jaietan

dituzte iurretarrak. Hala ere, aurtent eraberritutako txapelketa izango dute. Domeka honetan, irailaren 24an, albondiga txapelketa egongo da, 12:30ean, Iurretako plazan. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, parte-hartzaile bakoitzak bere osagarriak eta tresneria eraman beharko ditu.

Errosario Egunean, urriak 1, txanpi txapelketa egingo dute, 12:30ean. Lehiaketa honetara ere partaide bakoitzak bere osagarriak eta tresneria eraman beharko ditu.

“Txanpi txapelketak, gainera, epaile aditu eta zorrotzak izango ditu. Olaia Elgezua Arrigorri jatetxeko sukaldaria eta Zigor Iturrieta Txoriene



Montoitik jaurtitako txupinazoagaz hasiko dituzte jaiak.

programako aurkezle eta sukaldaria egongo dira herritarren txanpiak dastatu eta epaitzen”, jakitera eman dute Iurretako Jai Batzordeko kideek.

Azoka

Urriaren 1ean, berriz, urteroko Nekazaritza eta Artisau Azoka egingo dute, Aldaparapen. Iurretako udalak antolatzen duen XVIII. azokak 10:00etan zabalduko ditu ateak, eta 14:00ak arte Iurreta eta inguruko herrietako nekazari eta artisauen produktuak dastatu eta erosteko aukera egongo da. Bestalde, txahala burduntzi eran dastatzeko aukera ere egongo da.



Jai-giroa nagusi izango da urriaren 1era arte Iurretan.

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK •
- PLADUR HORMAK eta SABAIK •
- ISOLAMENDUAK •

Tailerra
Bidebarrieta, 7 behea • IURRETA • Tel.: 946 811 512
Mug.: 615 789 243 • serapiocalvo36@gmail.com

DDS
DESARROLLO de SISTEMAS

info@dds-online.net
902 197 296 / 946 300 596
Txikerra kalea, 2-2 B-C
ZORNOTZA
www.dds-online.net

Ondo pasa jaietan!
UNDARRI BIKE
Bizikleten konponketa eta mantenua
Bizikletarako osagarriak, ekipamendua,
janari eta edari nutritiboak

Bidebarrieta, 5 - IURRETA - Tel.: 946 817 808
www.undarrbike.com

DESGUACES PILASTRA

AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

GRUA ZERBITZUA

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA
Fauste Auzoa, 18
Zugastietara bidean
OSAGARRIEN SALMENTA
48215 IURRETA
Tel.: 946 201 787
gestion@desguacespilastra.com

Garage SAN MIGUEL

TallerXXI

ESPEZIALISTAK DIESEL
ETA GASOLINA MOTOREAK
KONPONTZEN

Dantzari auzunea, 8
IURRETA
Tel./Fax: 946 811 479
garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es

IURRETA KOPISTEGIA

Bidebarrieta 1 Bajo
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 10 70 Faxa: 94 466 82 60
info@iurretakopi.com
www.iurretakopi.com

Zirku mundiala etorriko da Iurretara Mozorro Egunean

Maiztegi ikastetxeko zirku ikasleek euren trebezia erakutsiko dute kaleetan

> JAIK Markel Onaindia
Sanmigeletako egun handietako bat izan ohi da Mozorro Eguna, familian zein kuadrillan egun-pasa egitekoa. Iurretako kaleak eta plaza kolorez betetzen dira, eta aurten ere horrela espero da. Berezia izango da, gainera.

Herri bazkariak gozatuko dute, eta, ostean, bingoa egongo da

Luhartzen erromerian plaza dantzazalez beteko da

Izan ere, *zirkua* ipini dute gai lez jai batzordekoek, mozorro bitxi eta barregarrietarako aukera aparta emango duena. Pailazoak, malabaristak, animaliak... Zirku mundiala etorriko da San Migel jaietara.

Eguerditik irtengo dira kalera iurretarrak mozorrotuta. 12:30ean elkartu, eta poteoa egingo dute tabernarik taberna. 14:30ean herri bazkariak gozatuko dute, eta, ostean, bingoa egongo dela azaldu dute antolazailleek.

Umeen zirkua

Arratsaldean etorriko da eguneko ekitaldirik politenetako bat: zirku ikuskizuna. Maizte-

gi herri ikastetxean, eskolaz kanpoko ekintzen artean, zirkua lantzen dute zenbait umek, eta hilaren 30ean euren trebe-



laz 'musika' izan zen mozorrotzeko gaia.



Batzuek irudimen handia edukitzen dute mozorrotzeko.

zia erakutsiko dute kaleetan. 17:30ean hasiko da emanaldia.

Deabruen piroteknia

Eguna ez da hor amaituko. Luhartzen erromerian plaza dantzazalez beteko da, 20:00etan. 22:00etan atsedean hartzeko ete-naldia egingo dute, eta Lekeitio-ko Deabruak taldeak piroteknia ikuskizuna plazaratzeko aprobetxatuko du.

Zunba solidarioagaz, tabernak martxan

> JAIK M.O.

Herriko tabernariak hainbat ekintza prestatu dituzte jaietan ekarpena egiteko asmoz, eta gaur izango da lehena, Gauargi tabernak Rio de Oro elkarteagaz batera deitu duen zunba solidarioagaz. 18:30ean hasiko da dantza saioa, eta partaidetzagaz batzen den dirua Sahararen aldeko taldearentzat izango da.

Zunba lez, egitarauan sartu dituzten ekintzetako batzuk Gauargikoek antolatuta dituzte;

Herriko tabernariak hainbat ekintza prestatu dituzte

beste batzutan Bodeguillak eta Ramonek ere parte hartu dute, eta herriko beste tabernak ere egin dute ahalegina gainerakoetan.

Marmitakoa

Bihar umeentzako jolasak eskainiko dituzte goizean, eta 12:30ean marmitako txapelketan lehiatzeko aukera egongo da. Giro ederra sortuko da, beraz.

Bestalde, mus eta tute txapelketak ere iragarri dituzte tabernariak.

La Bodeguita
PINTXOS & SNACKS

Pintxoak eta aperitiboak
Dantzari auzunea, 6 - IURRETA
Tel.: 944 669 357

LA GIPUZKOANA
JATETXEA
Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA
Tel.: 946 811 005

Eguneko menua astelehenetik larunbatera.
Afariak ostiral eta larunbatean.
Menu bereziak enkarguz.
Berezitasuna, "arrautza apurtuak"

Gauargi Taberna

Te bereziak
Gosari berezia

Dantzari, 5 - Iurreta

Azkonizaga

Edari banaketa
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Ortuzar, 1 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

betixu
IGOR SOLAGUREN

Iurreta
Galeria
ITURBURU kalea
48044 Bilbo
48044 Donostia

Tel.: 946 817 847 · Iturburu, 9 · IURRETA (Bizkaia)

BATZOKIA

ondo pasatu jaietan!

Iurretako
BATZOKIA
Eguneko menua
Enkargatutako afariak
Asteburuetako afariak

Bixente Kapanaga, 21
Tel.: 94 620 27 64

“Aukera desberdinak probatzen joatearen ondorioa izan da irudia”

Unai Agorriaren diseinuak irabazi du aurten jaietako kartel lehiaketa

> ELKARRIZKETA J. Derteano
Unai Agorria Uriguenek (Durango, 1995) irabazi du lurretako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Antzerako lehiaketa batera aurkeztzen zen lehenengo aldia izan du. Dantzarien banderako koloreez inguraturik, dantzari bi ageri dira gizonen zein emakumezkoen dantzarako osagaiekin jantzi-ta. Arrasaten industria-diseinua ikasten dabil durangar gaztea.

Zure ikasketek laguntzen dute sormenaren munduan? Baietz uste dut. Ordenagailuko erremintak erabiltzen zein pentsatzerako orduan lagungarria da.

Lehenengo aldia zenuen. Zerk animatu zaitu parte hartzera? Ez dakit, azken uneko erabakia izan zen. Lagunek animatu ninduten eta aurrera egitea erabaki nuen.

Parekidetasunari keinu egiten dion kartela dirudi. Hasieratik argi zenuen horrelako zerbait egin gura zenuela? Azken orduan hasi nintzen, ez neukan denbora askorik zerbait landua edo konplikatua egiteko. Beraz, mezutik jotzea erabaki nuen. Hasieran ez nekien seguru mezua zelan islatu, baina banekien zein ideiatik abiatuko nintzen.

“Lagunen laguntza eskertzeko, bazkari batera gonbidatu gura ditut”

Eta zelan lotu zenuen ideia dantzarekin?

Asier Vera laguna eta ni dantzariak gara lurretan. Bera argazkilaria ona da eta argazkiak ateratzeko geratu ginen. Karteleko irudia aukera desberdinak probatzen joatearen ondorioa izan zen. Tokian bertan inprobisatu genuen. Zenbait ideia hausnartu genituen, eta azkenean aterakoaren aldeko hautua egin genuen.

Beraz, lagunak laguntza izan zenuen?

Bai, Asierrek argazkiak atera zituen eta Oier Amezuak ere lagundu zidan. Izan ere, esan dudana moduan, egun gutxi genituen dena egiteko. Lehiaketako azken egunean Ibarretxera lana entregatzera joan nintzenean euskarri handiago batean aurkeztu behar zela konturatu nintzen. Arratsaldeko seiak ziren. Korrika inprentara joan, kopia handiagoa atera eta egurrezko xafla baten gainean itsasten ibili nintzen lagunagaz. Estres momentuak izan ziren, egia esanda. Bazkari batera gonbidatu gu-

ra ditut eman didaten laguntzagarrik.

Kolore aldetik ere kartel kuriozua da. Koloretsua inguruan eta zuri-beltzekoa irudi nagusian.

Koloreak lurretako banderaren agertzen direnak dira. Zuri-beltzekoak ez du arrazoi zehatzik. Kartela orokortasunean ikusita hobeto geratzen zela iruditzen zitzaigun.

Etxekoei gustatu zaie kartela? Zer diote kartelari buruz? Zoriondu egin ninduten. Polita da zure ingurukoei norberak egindako lan bat gustatzea.


Lehenengo parte hartu eta irabazi egin duzu. Sartzeko prest zauden ate bat ireki duzu? Datorren urtean ere aurkeztuko naizela uste dut, eta lan dotoreagoa egiten saiatuko naiz. Ez dakit berriro irabazteko zortetik izango dudana, baina denbora gehiago hartzen saiatuko naiz.

Eta beste herriren bateko lehiaketan?

Ez daukat parte ez hartzeko arrazoirik. Beharbada horretara jartzea da kontua.

Urte asko daramatzazu lurretako dantza taldean?

Umetan hasi nintzen lagunekin. Denok batera hasi ginen. Abar-



Agorria kartel irabazleagaz, lurretan.

kasegaz Goiuria ikastolan. Durangarra naiz, baina lurretako Maiztegin ikasi dut.

Dantzak tradizio bereziki errotua dauka lurretan. Bai, askok barrutik bizi dute. Neuk ere bai. Dantzak tradizio sakona dauka lurretan.

Zelan bizi izaten dituzu lurretako jaiak?

Gazteen ekitaldietan ibiltzen gara. Ni eta lurretako gazte denok, oro har. Ea aurten eguraldiak laguntzen duen.

500 euro irabazi dituzu. Jaietan joango da zati bat?

Ez dakit diruagaz zer egingo dudana, baina, nik uste, lehenengo astebururako helduko dela (barreak). Ez, gorde eta ikusiko dut zertan erabili.

IURRETA

Tellitu-n hurrengo eraikuntza

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

eraikuntza berria!

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Etorri ikustera geratzen diren 2 etxebizitzak!

Durangoko herrigunean
Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak
Hiriko txaletak
Oiz mendira begiratokiak
Leku zabalak

Etorri ikustera!

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak
Tel.: 946 816 573
www.zarateyelexpe.com

OKINDEGIA

ALBERDI

Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

IZARBE **TIEN 21**

Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altzariak

Bixente Kapanaga, 3 - IURRETA izarbek@izarbek.com
Tel.: 946 812 280 - Faxa: 946 216 336

Repara Tu Vehículo

Bestelako mekanika posible da

Ondo pasatu San Migel jaietan!

PROMOZIOAK

OLIOA+OLIO FILTROA EROSITA
15 MINUTU DOAN BOXEAN

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSITA
FRENO GARBITZAILEA DOAN

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI FILTROA EROSITA
30 MINUTU DOAN BOXEAN

www.reparatuvehiculo.es

N-634 errep. Durango - Bilbao 82 km.
UEI-3 ind. 5 behea - 48215 Iurreta Tel/Fax: 946 817 914

LAGOI S.L.

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

BILTEGIA IURRETA
Arriandi auzoa, z/g
Tel.: 94 620 33 22
Faxa: 94 621 58 74

ERAKUSKETA ABADIÑO
Alienalde pol. Astolabeitia, 9
Tel.: 94 621 52 84
Faxa: 94 621 52 85

www.lagoi98.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

“Willis Drummond eboluzio iraunkor batean dago beti, eta uste dut hori dela taldearen mamia”

Irailaren 29an lurretako jaietan joko du Willis Drummond taldeak. Jurgi Ekiza taldekideak dio “dena” emango dutela, “beti bezala”

> MUSIKA Itsaso Esteban
Asko jo duzue udan. Asetuta amaitu duzue ala gehiago aritzeko prest zeundekete?

Interesgarria da ikustea bakoitzak nola sentitzen dituen gauzak. Guri iduritzen zaigu biziki gutxi jo dugula uda honetan. Asete batzuk biziki intentsoak izan baitira, baina beste batzuk oso lasaiak. Udazkenara iristen gara jotzeko gogo handi batekin. Inoiz baino hobeto sentitzen gara eszena gainean, beraz, kontent gara heldu diren bi hilabeteak hain beteak izateaz, jakinez gainera, azaroan ez dugula batere joko, eta abenduan eta urtarilean izugarri gutxi.

Penintsulako hainbat jaialditan jo duzue udan. Zelako esperientzia izan da?

Ona, gu esperientzia berriez beti egarri gara, beraz leku eta jende berriak ezagutzea plazer bat da. Batzuk sorpresa onak izan dira, Sonorama adibidez; beste batzuk arraragoak, Vigoko skate lehiaketa, adibidez. Eta beste batzuentzat, pentsatzen genuen ongi izanen zela, eta horrela gertatu da. Actitud festibalean, aldibidez, ezin da gaizki pasatu.

Zelan hartu zaituztete herri horietako entzule berriek?

Aldi oro harrera ona izan da, benetan. Entzuleen kopurua alda-



Xan Bidegain eta Felix Buff (atzean), eta Joseba Baleztena eta Jurgi Ekiza, lehen planoan.

tu egin da kontzertuen arabera, baina bertan zeudenekin ongi pasatu dugu aldi oro. Beste zerbait da, kantak ezagutzen ez dituen jende baten aurrean gaude-lako horrelakoetan. Baina lortu dugu aldi oro atentzioa mantentzen, eta begi gehienetan zerbait pizten. Hori da bederen iduritu zaidana ezsentatokitik.

Entzuleek asko baloratzen duten zuen zuzeneko indar eta entrega hori oholtzara igotzen zaretenero pizten zaizue?

Pozten gara euskara ulertzen ez

dutenei ere zerbait transmititzen lortzen badugu. Baina, hala ere, aitortu behar dut beste zerbait pasatzen dela ohartzeko zure aitzinean duzun jendeak kontatzen duzuna segitzen duela. Horrela izan zen berriki Zestoan, eta ederra izan zen zinez! Energiari dagokionez, uste dut gogo eta barneko su hori mantentzen dugula, naturalki, kontzertu guztietan. Gero, zailena da eszitazio hori kontzertu guztian mantentzea, batez ere zerbait gaizki pasatzen bada une batean. Baina, orokorrean, gutxitan galtzen dugu, gero eta gutxiagotan erranen nuke.

Zer une gogoangarri bizi izan dituzue azken urtean eszenatokian? Eta entsegu lokalean?
 Oso txarra naiz horrelako galdera irekiei erantzuteko. Gauza gehiegi etortzen zaizkit burura, deus bilakatu arte... Momentu bikainak kontzertu gehienetan bizitzen ditugu, eta hierarkia bat egitea ez zait posible. Entseguetan, erranen nuke aintzetan gozatzen dugula gehiago Josebaren soloetaz, kontzertuetan bai-

“Diskoak harrera biziki ona izan du, eta olatu horretan gabilta oraindik”

“Inoiz baino hobeto sentitzen gara eszena gainean”

no, eta batzutan, gauza zinez magikoak entzuten ditugu. Elkarri begiratzen diogu besteok, eta ulertzen dugu denei pasatzen zaigula gauza bera.

Geldialdi luze baten ostean, iazko urte amaieran bueltatu zen Willis Drummond oholtzara. Premiarik duzue berriro denbora hartzeko, berriro ‘Tabula rasa’ egiteko?
Tabula rasa izan da benetako berpizte bat taldearentzat. Aurreko udan zenbait kontzertu eman genituen ere, kanta berriak egiteko gai eta gogotsu gi-

nela ziurtatzea izan da, bersortze bat. Diskoak harrera biziki ona izan du gainera, eta kalera-tu zenetik, ematen du gauzak lasaiki baina etengabe hobetzen direla. Eta olatu honetan gabilta oraindik. Uda honetan bi kanta berri grabatu ditugu, eta laster jakinen da zertarako.

Askok diote ‘Tabula rasa’ azken lana duzuela onena. Zuek nola bizi duzue taldearen eboluzioa? Zer garrantzia izan du zuentzat disko bakoitzak?

Orrialdeak idatzi ahalko nituzke disko bakoitzari buruz, denak biziki inportanteak izan baitira taldearen historian. Egin dugun maneragatik, agertzen diren taldekideengatik, grabaketa metodoagatik, konposatzeko eta idazteko maneragatik... Argi dagoena da taldea eboluzio iraunkor batean dagoela beti, eta uste dut taldearen mamia dela hori. Ez dugu anitz atzera begiratzen, baina egiten dugunean —berriki egitera behartuak izan gara laster iragarriko dugun proiektuarentzat—, hori da burura etorri zaidana. Lortu behar da nortasun bat mantentzen, aldatetako onartuz, hori baita benetako nortasuna. Bai talde baten zat, baita gizaki baten zat ere, ene ustez.

‘Ekiza’ zure bakarkako proiektuari lotuta, zer asmo daukazu? Bi proiektuak eramaten ditut aldi berean, momentuan taldeari lehentasuna ematen badiot ere.
 Oraitxe, aldibidez, elkarriketa honi ene furgonan erantzuten dihardut, Katalunian, Viceko Mercat de Música Viva jaialdian jo eta gero. Data gutxi batzuk iragarri ditut —urrian Baiona eta Larrabasterra, eta azaroan Tolosa—. Hasiko naiz berri birak antolatzen disko berria izanen dudanean. Ez dakit noiz izanen den, taldearekin ere proiektuak ditugulako!



IRIARTE
burdin lanak

Ertzilla Industrigunea, 2 - 17/18 pabiloiak
 48215 IURRETA (Bizkaia)
 Tel.: 946 814 890 - Faxa: 946 816 245
 contacto@caldereriariarte.com

www.caldereriariarte.com



FUNERARIA BASAGUREN
 DURANGALDEKO ERRAUSKETA-LABE BAKARRA
 ARRETA ASEGURU-ETXE GUZTIEI

BEILATOKIA - ERRAUSKETA LABEA **DURANGO** Aliendalde Ind. 8H eta 8J
 BULEGOA **ELORRIO** Ibaikua kalea, 6
www.funerariabasaguren.com
 24 orduko zerbitzua: 94 681 09 95 - 94 681 13 47



50 urte ospatzeko, Iurretan batuko dira berriz ezpatadantzariak

Merinaldeko Ezpatadantzari Egunaren 50. urteurrena ospatuko da domekan



2007an ospatu zuten Merinaldeko Ezpatadantzari Eguna azkenengoz Iurretan. Gerediaga Elkartea. Artxiboa.

> JAIK Aitziber Basauri

1967an antolatu zuten lehenengoz Merinaldeko Ezpatadantzari Eguna. Iurretan. Aurten, 50 urte geroago, berriz ere, Iurretan dute hitzordua jarrita Durangaldeko ezpatadantzariak. Merinaldeko Ezpatadantzari Egunaren 50. urteurrenak 11 dantza talde batuko ditu: Iurretatik lau talde, Izurtza, Garai eta Mañaritik talde bana, Berriztik Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeak eta Durangotik Txoritxu Alai eta Kriskitin bertaratu dira.

Irailaren 24an, domekan, ospatuko dute Merinaldeko 50. Ezpatadantzari Eguna, Gerediaga elkarteak, Durangaldeko dantza taldeek eta Bizkaiko Dan-

Durangaldeko 11 dantza talde batuko dira Iurretan, domekan

tzarien Biltzarrak antolatuta. 1967an ere irailaren 24an ospatu zuten Ezpatadantzarien Eguna, lehenengoz. Orduetik, 'Dantzari Dantza' izenagaz ezagutzen dena —bederatzi dantzek osatzen dute— ezagutzera ematea izan du helburu.

Durangaldean mendeetan iraun ostean, XX. mende hasieran Bizkaiko beste lurraldeetara zabaldu ziren 'Bizkaiko Ezpatadantza' izenagaz ere ezagu-

tzen diren dantzak. "Jatorrian lurralde zabalagoan dantzaten omen ziren, baina XIX. mende amaieran Mañaria, Izurtza, Abadiño, Iurreta, Berriz eta Garaiko elizateetan baino ez ziren dantzaten. XX. mende hasieran, berpizkunde handi baten ondoren, Bizkaiko lurralde gehienetara zabaldu zen", Gerediaga elkartetik azaldu dutenez.

Egitarau zabala

Aita San Migel plazatik abiatuko den kalejiragaz hasiko da eguna, 12:30ean. Gero, 13:00etan, Dantzari Dantza eta Soka Dantza edo erregelak egingo dituzte plazan. Bazkaria ere egongo da Askondon eta, eguna amaitzeko, erromeria eta kalejira ere bai.

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, San Migel egunez

Bertsoak ere San Migel egunera aurreratu dituzte

> JAIK A. Basauri

Egun handia dute iurretarek San Migel eguna. Gainera tradizio handiko ekitaldiek indartuta etorriko da aurten jai eguna. Izan ere, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek irailaren 29rako dute hitzordua jarrita, batetik; bestetik, antolatzen hasi zirenetik lehenengoz aldatu dute egunez bertso jaialdia Jai Batzordekoek, San Migel egunera aurreratu.

Urteetan asteburu bat lehenago etorri izan dira Pirritx, Porrotx eta Mari Motots Iurretara, jaien atarian. Motorrak berotzeko, egun horietan hutsik egin gabe aurkeztu dute ikuskizuna, Olaburu frontoian. Aurten, berriz, San Migel egunera arte itxaron beharko dute etxeko txikiak. Gainera, lehenengoz, Aita San Migel Plazan arituko dira,

Tipa-tapa, Korrika ikuskizunagaz. Doakoa izango da, 17:00etan hasita. Euria egiten badu, Maiztegiko frontoian egingo dute.

Bertsolariek, aldiz, Olaburu frontoian jardungo dute, 22:00etan, eta ohiturari eutsiz,

San Migel eguna "indartu" gura izan dute Jai Batzordekoek

goi mailako bertsolariak etorriko dira dira: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Alai Martin, Igor Elortza, Jon Maia eta Unai Iturriaga. Josu Goikoe txea izango dute gai jartzaile. Aldaketa hauekin San Migel eguna "indartu" gura izan dute Jai Batzordeko kideek.



'Tipi tapa, Korrika' ikuskizuna aurkeztuko dute pailazoek.

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoaotalora.com
692 859 779

URALDE
KLINIKA DENTAL
Begoña Zubimendi Goxencia
Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia
667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

ASIMAIR
COMPRESORES
SALMANTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA
Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16.
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415
asimair@asimair.com

ARRIBIDE
.. GASOLINDEGIA ..
Arriaundi Industrialdea P1
48215 IURRETA Bizkaia
Tel. 946 818 381
estacionservicio@arribide.com
www.arribide.com

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
Tel.: 946 812 123 / Faxes: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com



Innovation
that excites

NISSAN INTELLIGENT MOBILITY



NISSAN QASHQAI BERRIA BETI LEHENENGOA 17.900 €* TIK AURRERA

GAURSA

Arriandi Auzoa, 12 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 3,8 - 5,8 l/100 km. CO₂ isurpenak: 99 - 134 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

* PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, baina dauka FAR, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZCZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. Aplikatutako zergek erosketako unera arte aldaketak izango baltuzte, prezioa indarrean dauden zerga-tasa berrien aplikazioaren arabera moldatuko da. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan Qashqai Visia 1.2 DIG-T 115CV (85 kw) berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan 3D de RCI Banque SAren bidez finantzatzen badute. Gehieneko sarrera % 40, 24 hilabeteko gubieneko iraupena. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2017/09/30 arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko kontsultatu <https://www.nissan.es/>

Kinerally film laburren lehiaketa iraileko azken asteburuan egingo dute Zornotzan

Zornotzako Kine zineklubaren eskutik, film laburren lehiaketaren hirugarren edizioa egingo dute



lazio lehiaketako parte-hartzaileak, sari banaketa ekitaldiaren ostean.

> ZINEMA Itsaso Esteban

Kine zineklubaren eskutik, Kinerally film laburren lehiaketa hirugarren edizioa egingo dute, irailaren 29tik urriaren 1era bitartean, Zornotzan. Irailaren 29an, 19:30ean, egingo dute lehiaketaren aurkezpen ekitaldia, eta 24 orduz egiten jardundako lanak biharamunean aurkeztu beharko dituzte lehiaketan parte hartzen duten sortzaileek, Zelaieta zentroan. Irailaren 30eko 20:00ak arteko tarteak izango dute zinemagileek euren lanak entregatzeko.

Lehiaketaren aurreko bi edizioetan bezala, egun horretan Zornotzan egindako film guztiak proiektatu egingo dituzte,

urriaren 1ean, 12:00etan. Emaldi horren ostean banatuko dituzte sariak.

Zornotzako Kine Zinekluba zinemazale taldearen ekimenez baita, eta udako geldialdiaren ostean, zine zikloa ipiniko dute berriro martxan, urri hasieran. Hautaturiko gai baten inguruko lau film eskainiko dituzte, hilerro, Zornotzan.

Autore berriak

Urriko zikloa *Opera prima* izenekoa izango da, eta autore berrien lau lan emango dituzte: urriaren 3an, Carla Simón katalanak zuzenduriko *Estiu 1993* emango dute, Oscarretarako hautatu berri duten pelikula; 10ean, Eduardo Casanovaren *Pieles*; 17an, Lino Escaleraren *No sé decir adiós*; eta 24an Raúl Arevaloren *Tarde para la ira* eskainiko dituzte.

Zineklubaren hitzordu guztiak Zornotza Aretoan izango dira, 20:15ean.

Klown eta antzerki ikastaroetarako izen-emateak zabalik, Abadiñon

Nerea Ariznabarreta aktore eibartarra arituko da tailer bi horietan irakasle



Irrikiel clown elkartearen eskutik eskainiko du Ariznabarretak klown ikastaroa.

> ANTZERKIA I. E.

Aurreko ikasturteetan bezala, Irrikiel clown Bizkaiko Ospitaleko klown elkarteak antzerki diziplina horren inguruko ikastaroa eskainiko du, Abadiñon, udalaren laguntzagaz. "Ikasteko eta ondo pasatzeko gogoia" duen edozeini zuzenduriko ikastaroa da, eta antzerkiaren arloan ia bi hamarkadako esperientzia daukan Nerea Ariznabarreta aktore eibartarrak gidatuko du.

Urriaren 5etik ekainera arte egingo dituzte ikastaroko saioak, eguenetan, 18:15etik 20:15era, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

Klown ikastaroari buruzko informazioa eskatu edo izena ematea gura dutenek, 645732391 telefonora deitu edo *nere.arizna-*

barreta@gmail.com helbidera idatz dezakete.

Nerea Ariznabarreta izango da Abadiñoko Banarte antzerki taldeak eskainiko duen 10. antzerki tailerreko irakaslea ere. Irailaren 27an hasita, eguazterero, 18:30etik 20:30era elkartuko dira antzerkizaleak tailer horretan, antzerki taldeak Muntzaratz auzoan daukan lokalean.

Ikasteko eta ondo pasatzeko gogoia duten guztiei egin diete izena emateko gonbidapena

Oholtza batera lehenengoz igo gura duten pertsonen zein antzerkia aisialdiko aukera moduan gura dutenei zuzenduriko ikastaroa da Banarterena. Norbere burua ezagutu eta taldean jarduteko aukera. Izena emateko, *banarte@gmail.com* helbidera idatzi edo 656 772 823 edo 656 775 153 telefonoetara deitu daiteke.

Txapelketako lehenengo saioan, Beñat Ugartetxea

> BERTSOLARITZA I. E.

Bihar, 17:00etan, Baigorriko Ezker Paretan hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Lehenengo final-laurdena jokatu dute bertan sei bertsolarik, tartean Beñat Ugartetxea mallabitarrak. Aimar Karrika, Alaiia Martin, Ander Lizarralde, Mikel Artoia eta Xabi Maia bertsolariek osatuko dute seikotea, eta Joana Itzainak egingo ditu saioko aurkezle lanak.

Joan zen astean egin zuen Bertsozale Elkarteak txapelketaren aurkezpena, eta salgai ipini zituzten saioetarako sarrrerak. Asteon jakitera eman dutenez, Bertsozale elkarteak bazkideentzat 13 saioetara joateko eskuragai ipini dituzten bonu guztiak saldu dituzte.

Deshakespeareazioa
Karrika antzerki taldea eta Musika Eskolako Soka Taldea

Irailaren 29an eta 30ean
20:00etan

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

IRAILAK 28
20:00etan
KANTULAGUN
KANTALDIA

URRIAK 1
13:00etan
BORJA ESTANKONA
APERITIFA SESSION

URRIAK 1
18:00etan
ROCKIN' BIZI AC/DC
HAURRENTZAKO EKINTZA



Francesc Fàbregas | El Vallenceko zuzendaria eta ACPCko presidentea | Valls, 1954

“Kataluniako herriak erakutsi du hau ez dela alderdien kontua eta botoa eman gura duela”

Fàbregas El Vallenc aldizkariko zuzendaria epailearen aurretik pasatzeko zain dago irailaren 9ko erregistroaren ostean



> **BERBAZ** Jone Guenetxea

Francesc Fàbregas El Vallenc tokiko aldizkariko zuzendariari elkartasun mezua helarazi dio Tokikomex Valls herrian duten egoitza bisitatuz. Irailaren 9an Guardia Zibila astelehenaren egoitzara sartu zen, eta dokumentazioa eta Fàbregasen ordenagailua eraman zituzten. Ordutik, giroa zeharo nahasi da Katalunian. Besteak beste, eguaztenean Generalitateko kargudunak atxilotu zituzten eta 40 miaketa egin zituzten.

Espero zenuten erreferendumerako 8 egun falta direnean testuinguru hau bizitzea?

Ez genuen horrelakorik espero. Gobernu zentralak marra gorri guztiak pasatu ditu. Kataluniako autogobernua suspenditu du. Jarrera neurrigabe honeguz independentista gehiago sortzen ari dira. Katalunian hau guztia hasi zenean bozketa egin bazuten, ezetza irtengo zen, tarte handiagaz, gainera. Convergenciako hautesleria Espainian gustura sentitzen zen. Lortu du-

“**Jarrera neurrigabe honeguz independentista gehiago sortzen ari dira**”

tena da independentistak %25 izatetik %50 baino gehiago izatera pasatzea.

Milaka herritar kalera irteten ari dira. Zein giro sumatzen duzu kalean?

Kataluniako herriak erakutsi du hau ez dela alderdien kontua. Botoa eman gura dugula adierazteko irteten ari gara kalera. Ekitaldi baketsuak eta jai-girokoak izan arren, tentsioa nabari da. Jende nagusiari iraganeko sasoiak datozkio burura hemen gertatzen ari denagaz. Paperak galdu dituzte. Europa aldeko zuten, eta egunero ikusten ari gara babesa galtzen ari direla. Wikileaksekoa erreferenduma alde jarzea eta twitterren



Iban Arantzabal, Fàbregas, Jone Guenetxea eta Alaitz Artolazabal.

Vallencen alde agertzea esan-guratsua da. Munduan eraginik handiena duen pertsonetako batek 25.000 biztanleko herri bateko astelehen bati elkartasuna adierazteak esan gura du gobernuak gero eta jende gehiago duela aurka.

Erreferendumak badu atzera bueltarik? Gizartean zein sostengu duela uste duzu?

Hauteskunde hauek herriarenak dira. Herriak bultzatu ditu. Gobernuak deialdia egin du, baina herriak sustatu du. Herriak gobernua erreferenduma

egitera behartu du. Azaroaren 9an botoa eman genuen eta gutxietsi egin zuten. Hala ere, ilarrak sortu ziren botoa emateko eta jendearen ilusioa ikusi zen. Orduan esan zuten gero eta independentista gutxiago daudela. Bada, bozketa batean ikus dezagun.

Puigdemontegaz zer gertatuko da?

Harro egon beharko genuke bere hitza bete duen presidente bat izateagaz, jokoan duen guztia-gaz. Ez gaude ohituta horrelako politikariak ikustera. Eta berdin, hainbat herritako alkateekin. Puigdemonti herriak zilegitasuna eman dio. Zuk uste duzu hau inork gelditu dezakeela?

Zein da une honetan zure egoera judiziala irailaren 9an EL Vallenc aldizkariko erredakzioa erregistratu eta gero?

Epailearen aurrera deklaratzera joateko zain nago. Pentsatzen genuen erregistroa egin zuten egunean bertan izango zela, baina, momentuz, ez dugu ezer jasotako. Dokumentazioa eta nire ordenagailua eraman zituzten, eta begira ibiliko dira. Ez dakigu oraindik zeren bila zebiltzan. Beraz, zain gaude.

Vallencen gertatutakoagaz zein irakurketa egiten duzu?

Oso argi daukat. Eszena mediatiko bat egitea zen helburua, beldurraren politika egiteko. Hedabide batera sartzen dira zapatu goiz batez. Asteburuetako zerbitzu minimoak daude, eta inork ez du erresistentziarik jarriko. Nola da posible Madriletik polizia indarrak bidaltzea? Hemen, atea jotzea nahikoa da barrura sartzeko. Hedabide guztietan gobernu zentrala gogorra dela agertzea interesatzen zaie, eta legea aplikatzen duela. Urriaren lehen galdeketa egin ez dadin, bitarteko guztiak jartzen ari direla irudikatu gura dute. Zarata handia atera gura dute. Vallencen jendeak jai-giroko ekitaldi moduan hartu zuen. Momentu horretan nire herriagaz harro sentitu nintzen. Prozesu honetan beti diogu jende bakezalea garela eta botoa ematea dela gura duguna.

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119/13

PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

PSE: 57/16

PODOLOGIA

**PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

NEREA RODRIGUEZ
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak
Monagotorre, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 630

PSE: 148/13

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 387

PSE: 16/09

ODONTOLOGIA

clínicadental hortzclinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**
ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO
uecdental@gmail.com
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

PSE: 145/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

PSE: 112/13

OPTOMETRIA

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

PSE: 162/13

PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO
ugatz@hotmail.es
Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

PSE: 63/63

MEDIKUNTZA

IGOTZ ARANBARRI

zkurdi
osatu zentroa-centro médico

**DIABETESA DAUKATEN
PERTSONENTZAKO ARRETA
ETA LAGUNTZA ZERBITZUA**

Askatasun Etorbidea, 23
DURANGO
Tel.: 946 81 81 81

PSE: 40/17

PSIKOLOGIA

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728


PSE: 62/11

Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

**Bidali zure argazkiak
irailaren 30era arte**

UDA KO 3. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldeko argazkirik
onena, 2016koa
JOSEBA ACEDO

Durangaldetik kanpoko
argazkirik onena, 2016koa
LEIRE UNZUETA



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA **anboto** 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK **EROSKI** bidaiak
Anetatik? Egin lagun!

EROSKI
Abadiño Zurekin

eiaia.ir

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

Itsaso Pradera Olaso (Mallabia, 1986) | Paleta goma utzi du 17 urteko ibilbidearen ostean

“Emakumea izanagatik pilotan bagenekiela frogatu behar hori sentitzen genuen hasieran”

Txapelez eta arrakastaz betetako ibilbide oparo baten ostean, Itsaso Praderak paleta goma uztea erabaki du

> **KIROLA** Joseba Derteano

Etxeko geletan sakabanatuta dituen txapeletako lautan ‘munduko txapeldun’ berbak irakurri daitezke. Palmarekin oparo bateko tontorrak dira. Gaztea den arren ez du hasierako ilusiorik, eta erretiratzea erabaki du. Umil eta zalapartarik atera barik; horrela agurtu du bere ibilbidea hamarkada batean Euskal Herriko paleta goman erreferente nagusienetakoa izan den pilotariak.

Oraindino adin ona daukazu pilotan jarraitzeko. Zergatik hartu duzu uzteko erabakia?

Iaz eta orain urte bi ere banuen uzteko gogo. Udako zirkuituak hurrengo denboraldian ere jarraitzen duenez, ba, jarraitu egin dut. Baina aurtengo azkena izan da. Lehen, asteburuetan gogoz eta ilusioz ibiltzen nintzen hara eta hona, baina, azken aldirian, partiduetara joanda, egin ezin nuena izaten nuen buruan. ‘Ezin dut hona joan edo ezin dut hau egin’. Horregatik erabaki dut uztea.

Ez da izan gorputzak ez zuelako gura moduan erantzuten. Ez, baina motibazio faltak eragiten du sasoi puntuan. Ez zen lehengoa.

Bizi osoa frontoirik frontoi ibilita, kostatzen da erabakia hartzea?

Ez hainbeste, banekien eta frontoiari lotuta jarraituko nuela. Mallabiko pilotalekuan lan egiten dut [frontoiko kudeaketa darama] eta lagunekin sarritan geratzen naiz jokatzeko. Beraz, pala ez dut utzi.

Aita eta nebak pilotari lotuta egon dira. Etxean umetatik ezagutu duzun kirola da.

Neba bat txirringularitzan hasi zen ondoren. Nire asteburuak horrelakoak ziren txikitik: batean neba baten lasterketara, eta hurrengoan bestearen pilota partidura. Mallabian ez zegoen beste kirol batean aritzeko aukera handirik ere.

Orain 17 urte esku pilotatik paleta gomara pasatu zinenean, zein zen kirolaren egoera?



Nik banekien trinketeen Tornosolo taldea zegoena, eta han probatu nuen. Neskek bakarrik osatutako taldea zen. Bizkaian ez dakit beste talderik bazegoen. Nik uste dut Bizkaian paleta goman jokatzen genuen neska denok Tornosolon genbiltzala. Markinako eta Bilboko pilotariak etortzen ziren.

Eta orain, zein da egoera?

Orain pilota klubek nesken pala taldeak sortu dituzte. Durangaldean hainbat daude. Txikitatik ezagutzen dute paleta gomaren mundua, eta hori inportantea da.

Zuri eta zure belaunaldikoei harresi batzuk eraistea egokitu zitzaizuen?

Partidu bat jokatzen genuenean zerbait erakutsi behar genuen presioa sentitzen genuen.

“**Ez dut ahaztuko lehenengo munduko txapela; bigarren bikote lez joanda irabazi genuen”**

Emakumeak izanagatik pilotan jokatzen bagenekiela frogatu behar hori, hain zuzen. Ez dut uste oraingo gazteek sentazio hori dutenik, eta horrek garapen bat eman dela erakusten du.

Ibilbide luze honetan bada unerik, txapelik, pertsonarik... betirako oroimenean eraman-go duzunik?

Laura Saez eta Ane Isasmendi, esaterako. Euskadiko selek-

zioagaz sarritan ibili naiz eurekin. Atzerriko pilotariekin ere gogoratzen naiz; txiletarrak, argentinarrak eta estatubatuarak, kasu; beharbada ez ditudalako berriro ikusiko. Pena apur bat ematen dit, egia esanda. Une edo txapelei dagokienez, gaitza da bat bereiztea, baina nire lehenengo munduko txapela ez dut sekula ahaztuko. San Frantziskon (AEB) izan zen. Ez nengoen hara joateko aukeratuen artean, baina atzerriko bikote batek huts egin zuen eta bikote berri batentzako tokia sortu zen. Uxue Fernandez eta ni aukeratu gintuzten. Beraz, Euskadiko selekzioak bikote bi eraman zituen, eta Uxue eta biok geratu ginen munduko txapeldun, bigarren bikote moduan joan arren. Oso une polita eta berezia izan zen. **Paleta gomak mundua ezagu-**

tzeko aukera eman dizu?

Bai, eta hori da gehien betetzen nauena. Munduan batetik bestera ezagutu dudak jendea. Denok batera egoten gara eta giro polita sortzen da.

Hamarkada batez paleta gomako erreferenteetakoa izan zara. Beti faboritoen artean. Presio hori zaila da eramateko, ala gustura hartu duzu?

Momentuaren arabera. Sasoiaren baxude, konfiantza handiagoa duzu zure buruarengan eta errazago eramaten da. Txapelketaren bat egon denean edo atzerriara jokatzen joan naizenean, orduan sentitu dut presio apur bat gehiago, baina, tira, azkenean ondo moldatzen ginen.

Nesken paleta goma taldea sortu zenuen 2008an.

22 neskez hasi ginen, eta gaur egun 15 bat dabilta. Kopuru polita da. Aurtengo ikasturtean utzi dut hori ere, baina taldeak aurrera darrai.

Hain harrera ona izango zuela espero zenuen?

Ez. Eskoletara joan eta neskek batu guran hasi ginen. Hiru-lau batzeko modurik izango ote genuen galdetzen nion neure buruari. Eta begira. Lehenengo mailatik seigarrenera arteko neskarik gehienek eman zuten izena. Hasieran motibazioa landu genuen neska batzuekin. Mundu berria zen eurentzat eta konfiantza falta zitzaien. Paleta goman egin zezaketela barneratu gura genien.

Euren irakaslea eta erreferentea izan zara. Zeuk irakatsi diezu. Paleta goman utzi duzun ondarea dira.

Alde horretatik oso pozik nago. Ilusio itzelagaz egin dudak lana izan da. Ni baino urrunago heltzen badira, poztuko naiz. Seinale ona izango da.

Jarraitzailerik sutsuena etxean omen duzu: ama.

Bai, oso pilotazalea da. Gaztegotan, dudak nituenean, beti animatu ninduen. Uneoro. Babes handia izan da niretzat eta asko eskertzen diot.

Gaztetasuna eta azkartasuna uztartuko ditu DRTk aurtengo denboraldian

Ohorezko B mailako lehen partidua irabazi du Durango Nissan Gaurisa taldeak asteburuan

> ERRUGBIA Maialen Zuazubiskar DRTk ezin hobeto hasi du aurtengo denboraldia. Etxean jokatutako lehen partiduan Ourenseko taldea mendeen hartu zuten Durango Nissan Gaurisa taldeko mutilek. “Partidu oso polita izan zen eta etxeko jokalariek maila izugarria erakutsi zuten partidu osoan zehar”, adierazi du Juan Manuel Iriondo “Txapo” DRTko presidentek.

Aurtengo denboraldian, senior mailan, Ohorezko B mailako taldean eta Euskal Ligakoan 45 jokalaritari dituen klubak “familia bat izatea eta jokalariek ondo pasatzea” helburu duela adierazi du presidentek.

Horrez gain, denboraldi honetan Ohorezko B mailan jokatzen dabiren taldeak gaztetasuna eta azkartasuna aldeko izango dituela nabarmendu du Txapok. “Harrobitik irteadako



Durango Nissan Gaurisa taldeko kideak. Pedro Moreno.

jende gazte asko daukagu, eta lehen partiduan ikusi den bezala, horiek azkartasuna emango digute. Gainera, etxeko jokalariekin bakarrik gabiltzan talde

bakarrenetarikoa gara, eta hori pozgarria da”, gaineratu du.

Aurtengo helburuez galdetuta, lehenengo seien artean sailkatzea “ondo” egongo litzateke-

la adierazi du DRTko presidentek. Hala ere, helburu nagusia jokalariek “ondo pasatzea eta lesiorik izan gabe errugbiaz disfrutatzea” dela azpimarratu du.

ADITUAREN TXOKOA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR

Mendi lasterketak



Munduko Kopa

Mendi lasterketen munduko kopan hiru modalitate daude aurtengo: Sky, Extreme eta Ultra. Ni lehenengoan nabil parte hartzen. 11 lasterketa dira guztira, eta horietatik bost emaitzarik onenak dira puntuagarriak azkenean.

Eta, zergatik aukeratu dut Sky? Kontu erraza: Zegama-Aizkorri tartean delako, kutunena. Lleidan (Katalunia), Canazein (Italia), Comapedrosan (Andorran) eta Kinlochlevenen (Eskozia) ere hartu dut parte. Horiek markatu genituen egutegian, familia, lana eta dirua kontuan hartuta. Azkena falta da, Limonekoa (Italia).

Kopako ibilbidean alde onak eta txarrak aipatu gura nituzke. Txarretan, bidaie-tako nekea nabarmendu behar. Batez ere, seme biera. Baina alde onak gehiago dira. Hasteko, lasterketak familian bizi ditugula. Eta, jarraitzeko, selekziokoon giro ona eta harreman estua; familiakoek, lagunak eta ingurukoek emandako animoak; eta ezagutzen diren leku eta lagun berriak, Laura Sola korrikalari nafarra, adibidez. Eta bitxikeria lez, Eskoziako garagardoa, Canazein Aitziber Ibarbiak Alluitzi urtegunean oparitutako baloia, Alluitzi “gelato di txokolato” azentu italiarrez entzutea, edo anaia txikiari hegazkinean esan ziona: “Ondiñon ez, Ametz, lañue pasau eta gero dau zerue”. Mundiala! Eta egunkari batean irakurritakoa: ‘Azkorbebeitia, que se tapa la bandera de España del dorsal con una pegatina’. Ez ba!

Hiru astez 2.300 metroko garaieran entrenatu da

Konako hitzordua prestatzen dabil Frades

> TRIATLOIA J. D.

Garaieran entrenatzeak dituen onuren bila, Gurutze Fradesek hiru astez egonaldia egin du Sierra Nevada (Granada), errendimendu handiko zentroan. 2.320 metroko garaieran entrenatzen ibili da.

Lan horrek guztiak helburu bakar bat du: urriaren 14an Konan (Hawaii) izango den munduko triatloi txapelketara — Ironman distantzian — ahalik eta sasoirik onenean heltzea.

Sierra Nevada entrenamenduen onura neurtzeko, asteburu honetan Augustuko Ironmana (Georgia, AEB)

lehiatuko du. Ostean, Hawaiiira bidaiatuko du eta 20 bat egun izango ditu hango baldintzetara (beroa, hezetasuna...) apurka egokitzeko.



Urriaren 14an da Konako proba.



Eskoziako podiuma: Sheila Aviles, Laura Orgue eta Oihana Azkorbebeitia.

Azkorbebeitiak eskura du Kopako podiuma

> KORRIKA J. D.

Mendiko lasterketen Munduko Kopa amaitzeko proba bakarra falta da eta Oihana Azkorbebeitiak sailkapen nagusian podiumean amaitzeko aukerak ditu. Orain laugarren dago. Urriaren 14an Limonen (Italia) lehiatu-

ko den lasterketa geratzen zaio edozelan ere bikaina izango den denboraldia borobiltzeko. Orain arteko lanak eman dio horretarako aukera. Aurreko asteburuan, esaterako, hirugarren amaitu zuen Eskoziako proba, puntu baliotsuak batuz.

hitz **#gomendioak**
liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELDIERTZAT
BARNER ALKIMIAK
OINARRI MAKROBIOTIKOAK
Egoltz Garro
2017

UME ETA GAZTEENTZAT
TIPI-TAPA, KORRIKA! (DVD)
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
2017

MUSIKA
30 AÑOS DE TANGOS
Malevaje
2017

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA
Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

**MATRIKULAZIO
DATAK**
urriaren 2tik,
urriaren 9ra

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten

HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



OTXANDIOKO HAURRESKOLA
Mainondo, 7A OTXANDIO
Tel.: 945 450 997
otxandio.otxandio@haurreskolak.eus



ZALDUZUBIETA

ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia, z/g ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

Sasoian jarraitzen duen beteranoa

Barrenetxea-Arandok Euskadiko Rallysprint Txapelketa irabazi du, bigarren urtez jarraian

> AUTO LASTERKETAK J. D.
17 urtez erretiratuta egon ostean, iaz auto lasterketen mundura itzultzea erabaki zuen Enrique Barrenetxea-Arando pilotu zaldibartarrak, eta apustuak borobil irten dio. 51 urte gaz, bigarren urtez jarraian irabazi du Euskadiko Rallysprint txapelketa. Beteranoak sasoian jarraitzen duela erakutsi du.

Anartz Onandia kopilotua eta Mitsubishi EVO IXa ditu bidelagun errepedetara itzuli zenetik, eta, oraingo, hirukote irabaztailea osatzen dute.


Datorren urtean tronua defendatzeko asmoa duela iragarri du. “Ondo nago. Beste urtebeterako bai, gutxienez. Erritmoa falta zaidanean neu izango naiz konturatzen aurrenekoa”, dio. Lehiakor sentitzen den bitartean, “aurrera” egiteko asmoa du. “Normala den moduan, denbora joan ahala beteranoak beherantz joango gara, eta gazteek, aldiz, gorantz egingo dute. Helduko da egun hori, baina, oraingo, lehiakor ikusten dut neure burua”, adierazi du.

Erregularitasuna izan da iazko lorpena errepikatze gako. Bost lasterketa irabazi ditu (Gaberria, Hondarribia, Azkoitia, Karrantza eta Aramaio), eta gainerako bietan bigarren sailkatu da. Autoagaz arazorik ez izateak ere lagundu du. Iaz elektronika kontuek buruhauste bat baino gehiago eragin zioten. Goierriko lasterketako istripuak ere ez zuen lagundu. Beraz, autoa orekatu zutenerako, geratzen

“Ondo nago; erritmoa falta zaidanean neu izango naiz konturatzen aurrenekoa”

zen dena irabaztea beste irtenbiderik ez zitzaion geratzen. Alde horretatik, aurtengoa denboraldi “erosoagoa” izan da. “Ez dugu istripurik izan, ezta iazko arazorik ere. Lasaiago ibili gara”, gaineratu du pilotuak.

Aspaldiko txapelketarik laburrena izan da aurtengoa.



Orain 20 urte irabazi zuen Gernikako rallyan parte hartzeko aukera aztertzen dabilela onartu du.

Orain urte bi, hamar lasterketa izan ziren, iaz bederatz, eta aurtent zazpi. San Miguelekoa eta Zornotzakoa ez dituzte antolatu.

Gernikako rallya

Bere kirol ibilbideko lehenengo etapan, Gernikakoa izan zuen Euskal Herrian parte hartzen zuen azkenengo rallya. Irabazi egin zuen. Urrian 20 urte egingo dira egun hartatik. Beraz, proba berezia da zaldibartarrarentzat, eta aurtent han parte hartzeko tentazioa baduela dio. Ez du ezer erabakita, alderdi ekonomikoak eta bestelakoak kontuan hartu behar direlako, baina “buruan darabilen” kontua dela onartu du.



Anartz Onandia kopilotua eta Mitsubishi autoa izan ditu bidelagun.

Tabirako-Getxo, Baqué Torneoko finalerdian

Finala domeka eguerdian jokatu dute

> SASKIBALOIA J. D.
Tabirako Baqué emakumeen taldeak Baqué Torneoa jokatu du, asteburuan, Landako kiroldegian. Etxeko torneo hitzordu aproposa izaten da taldeen prestakuntza mailaren gaineko temperatura hartzeko; azterketa bat liga erregularrari ekin aurretik. Durangoko taldeak Getxoren kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan 19:00etan jokatu den lehenengo finalerdian. Aurretik, 17:00etan, Añares Rioja eta Tirso Cantabria taldeen artean irtingo da finaleko bigarren protagonista. Torneoko finala domekan, 12:00etan, hasiko da. Errioxarrek beste hiru taldeek baino maila bat gorago jokatzen dute.

Gizonena Gabonetan

Normalean, emakumeen torneo jokatu eta hurrengo asteburuan izaten da gizonena.

Aurtent, ez. Momentuz, ez dute antolatuko. Saskibaloit taldeek agenda partiduz beteta dute eta gaitza da Tabirakoren maila berekoak ez direnak konbentzitzea. Horregatik, alternatiba bat aztertzen dabiltza: gizonen torneo Gabonen inguruan antolatzea. Torneo erakargarriagoa egiteko, “baldintza aproposagoak” eman daitezkeela uste du Ina Mendibe klubeko presidentek.

Zornotza-Tabirako

Baqué Torneurik ez, baina lagunarteko beste hainbat partidu jokatu dituzte gizonak. Irailaren 30ean Zornotza Saskibaloit Taldearen kontra Landako kiroldegian jokatu dutena da horietako bat. Zornotzarrek denbora gutxi dute sasoi hartzeko, udan bizitako egoera latzaren ondorioz. Astelehenean hasi zituzten EBA mailan ari zeko entrenamenduak.

Elorrion eta Iurretan martxa bana asteburuan

Zaldai eta Erdella taldeek antolatu dituzte



Zaldai taldearen martxa 08:30ean hasiko da, plazatik.

> MENDIA

J. D.
Iurretako eta Elorrioko inguruak ezagutzeko aukera dago asteburuan, herri bietako mendi taldeei esker. Iurretako mendi martxa Zaldai taldeek antolatuko du, zapatuan. Ibilbide bi prestatu dituzte: 14 eta 23 kilometroko bana. Biak 08:30ean hasiko dira, plazatik. Ibilbide luzean Aramotz mendilerrotik igaroko dira, tartean Artatzagane (996 metro) eta Leungane (1006) mendiak igoaz. Izen-ema-

tea egunean bertan egin daiteke, 12 eurotan. Kamiseta bana oparitu dute partaideei.

Erdella Mendizale Elkarrekin, berriz, Elorrixoko 22. Bira antolatuko du domekan. Ibilbide bi prestatu dituzte: 16 eta 31 kilometroko bana. Ibilbide luzea 16 urtetik gorakoei bideratuta dago eta 07:30ean irtengo da. Udalatx, Intxorta eta Erdella tontorrak igaroko dituzte. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, plazan.

Martxan da San Fausto zesta-punta txapelketa

> ZESTA-PUNTA

J. D.
San Fausto zesta-punta txapelketak hasi du bere bidea. Ezkurdi Jai Alai zesta-punta eskolak eta Peña Ezkurdi taldeak antolatutako 34. aldian hamabost talde parte hartzen

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko 15 talde dabiltza lehiari Ezkurdiko frontoian

ari dira. Durangoko eta Bizkaiko hainbat talde gainera, Gipuzkoa (Zumaia, Hondarribia...), Araba (Gasteiz), Nafarroa (Noain, Cabanillas) eta Ipar Euskal Herriko (Biarriz, Bidart eta Donibane Lohitzune) ordezkariek dabiltza. Zapatuan, 18:00etan, eta domekan, 11:30ean, jokatu dituzte kanporaketak. Finala San Fausto jaietan izango da.

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezuaz: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizita eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Aramalo. Baserri etxea. Aukera asko. 360m2 gehi 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako parke naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Pisua alokatzen da Berrizen. 50m2. Garaje eta traselekuarekin. Eskola aurrean. 600euro. Tel.: 646-69 19 54.

Berriz. Baserri bateko lehen solairua alokagai dago Sarrion (Berriz), lur saila barne. Tel.: 655-72 52 52 eta 652-75 47 23.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Durango. Durangon pisuren bat erdi bana edo hiruren artean alokatzeko pisukide bila dabiren 32 urteko durangar bat naiz (beti zereginetan, alaia, euskalduna eta bizikidetzaz errazduna). Interesatuta bazaude, bidali mezu bat hizketan hasteko 646 656 589 zenbakira.

Durango. 34 urteko neska durangarra naiz eta pisukide arduratsua baten bila nabil. Interesa badaukazu, idatzi mezu bat edo deitu zenbaki honetara. Tel.: 637-32 74 65 .

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN EMAN

Otxandio. Otxandion garaje itxia alokagai. Tel.: 675-71 72 83.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durangaldea. Lan bila nabil zerbitzari moduan. Esperientzia daukat. Beste lan batzuk egiteko prest ere bano. Tel.: 651-64 68 82.

ETXEKO LANAK

Durango. Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645 70 68 39.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketa egiten. Hiru orduko lana nahi dut, goizez zein arratsaldez. Tel.: 655-85 79 95

Durangaldea. Lan bila nabil etxe kein enpresetako garbiketari, banatzaile lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen. Goizez, asteleheneetik barikura bitartean. Tel.: 606-78 76 78

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Elorrioko emakume euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak esnatu, gosaltzen eman eta eskolara eramateko prest (Elorri berton). Tel.: 658 759 264.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan. Erabateko prestasuna.

Tel.: 632-75 79 30

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita etxe edo atarrietako garbiketa egiten edo sukaldari laguntzaile lanetan ere. Orduka, gauz edo kanpoko langile moduan. Tel.: 665-13 30 89.

Durangaldea. Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzen lan egin nahi du, baita atariak garbitzen ere. Kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 632-99 90 79.

Durangaldea. Neska gaztea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea, eskarmentu eta erreferentziarekin. Tel.: 637-16 97 32.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo plantxa egiten. Arratsaldetan egin nahiko nuke lan. Tel.: 697-49 20 58.

Durangaldea. Neska euskalduna, ikasketekin eta esperientziarekin, umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko edo orduko langilea. Ordezkapenak egiteko prest. Tel.: 632-63 60 69.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo orduko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-85 10 93.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein orduko langilea. Tel.: 632-92 71 94.

Durangaldea. Gizonezkoa lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko zein orduko langile moduan. Esperientziarekin. Tel.: 631-82 33 86.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Kanpoko langile moduan edo orduka lan egiteko prest. Baita asteburuetan ere. Tel.: 602-01 24 53.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko edo orduko langile moduan aritzeko prest nago. Tel.: 631-69 80 95-Tel.: 722-56 22 41

Durangaldea. Lan bila nabilen gizonezkoa naiz. Prest nago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Kanpoko, barneko edo orduko langilea. Tel.: 610-06 70 42.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan, erdian zein orduka. Eskarmentua daukat. Tel.: 689-74 23 57.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona

nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketa lanetan, sukaldari laguntzaile moduan... Lanaldi erdian edo kanpoko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 606-87 78 97.

Durangaldea. Lan bila nabil umeak zaintzen zein etxeetako garbiketa egiten. Esperientzia daukat jantokiko begirale lanetan. Tel.: 688-64 36 28.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo orduko langile moduan. Tel.: 631-11 07 16.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Orduka zein gauz lan egiteko prest. Tel.: 612-24 53 26.

Durangaldea. Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketari. Goiz, arratsalde zein egun osoz lan egiteko prest. Esperientzia zabala. Tel.: 632-50 25 01.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-29 16 73.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko edo orduko langile moduan. Tel.: 631-11 07 16.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 602-08 96 62.

Durangaldea. Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Egunez zein gauz. Paperak behar bezala ditut. Tel.: 631-90 19 87 edo 602-08 96 62.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein orduko langile moduan. Tel.: 603-75 05 18.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko edo orduko langilea. Tel.: 605-22 13 56.

Durangaldea. Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko edo kanpoko langile moduan. Berehala hasteko moduan. Tel.: 632-44 11 55.

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrik banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40.

Durango. Ingeles klaseak jasotzeko 2 pertsona behar dira, 5 pertsonako talde txiara osatzeko, A2-B1 maila. Astearte eta ostegun arratsaldetan izango liriteke. 1h 30 minutuko 2 klase astean. Gazte eta helduentzat zuzendua. 2. ikasturtea izango da aurrekoaren arrakasta ikusita. Informazio gehiago jasotzeko deitu

edo whatsapppeatu konpromisorik gabe (Tel.: 645 707 124)

Durango. LHko ikasleentzat eskola partikularrik ematen ditut arratsaldeetan, liburutegian nahiz nire etxean. Klaseak meen beharretara diseinatzen ditut. LHtzan graduatua eta EGAduna naiz, edozein adinetako umeekin esperientzia handia duena. neresan17@gmail.com

Elorrio. Matematikako klase partikularrik ematen ditut DBH 1. eta 2. mailatan. Nire etxean. Banakako zein talde txikietako klaseak. Interesa baduzu, deitu konpromisorik gabe: 628 294 806.

Durangaldea. Irailetik aurrera eskola partikularrik emateko prest nago. Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian eta hizkuntza arazoetan espezializatuta dagoen irakaslea naiz eta 6-12 urte bitarteko ikasleei eskola partikularrik ematen esperientzia daukat. Tel.: 685 774 180.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Neska euskalduna eta esperientziaduna enpresa zein autonomoen kontabilitatea, diruzaintza... eramateko prest. Tel.: 635-71 59 28

Durangaldea. Lan bila nabil lorezaintzan, baserriak edo abereak zaintzen, garbiketa lanetan edo gizon nagusiak zaintzen. Tel.: 602-85 05 05.

Durangaldea. Gizonezkoa lan bila lorezaintzan, gizonezko pertsona nagusiak zaintzen, igeltserotza laguntzaile moduan, finkak edo baserriak zaintzen. Tel.: 631-27 91 26.

Durangaldea. Lan bila nabil eraikuntza zein lorezaintza lanetan. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. Barneko, kanpoko edo orduko langile moduan. Tel.: 602-83 18 18.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Zaldibar. Zerbitzari bila gabiltza Zaldibarren. Taberna batean lan egiteko, asteleheneetik barikura. Orduetgia eta soldata zehazteko. Berehala hasteko. Idatzi edo deitu: 647 268 863 telefonora.

IRAKASKUNTZA

Durango. Euskarazko irakaslea behar da, heldu batentzat. Ez dut azterketarik prestatu behar. Tef.: 645 009 602

Fruta eta barazki arloan lan egingo zenuke jendearekin hartu-eman zuzena duen denda batean?

Deitu 946 817 616 telefonora edota hurbildu Mahats dendara eta hitz egingo dugu

SALDU / EROSI

Bi lanpara saltzen ditut. Logelako lanpara bat eta txoko baterako brontzezko lanpara bat salgai ditut Otxandion. Tel.: 675-71 72 83.

Egurrezko gurdia salgai. Idi parearen egurrezko gurdia salgai. Egoera onean eta azken matrikulazioa 1965ean. 700 euro. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 633 66 64 92

Eskuz egindako tokillak. Eskuz egindako artilezko tapukak, bufandak eta gorroak. Tamaina eta kolore ezberdinetakoak. Enkarguz ere egiten dira. (datzi mezu edo deitu: Tel.: 946 583 290)

Hozkailua salgai. Durangon, 50 euroren truke. Izozkailua ez dabiren arren, erdi berri dago. Tel.: 636-04 63 18

Txokoa. Durangoko Zingilipurka alkarteko kide izateko partizipazioa salgai 6.000 eurotan. Tel.: 607 30 78 87

EMAN / HARTU

Artzain-txakurkumeak. Artzain-txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 688 814 225.

Familia - etxea

ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

SALDU

Hozkailu txiki eta berri bat salgai. Tekka markako hozkailu berri eta txiki bat saltzen dut. Apropoza da txokoetan zein ortuetan jartzeko. Tel.: 655-72 56 31



LAN ESKAINTZA

Anboto Komunikabideak elkarrekin komertziala behar du

ESKATZEN DA:

- Gaiarekin lotutako ikasketak izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Interneteko jakintza.
- Lantaldean lan egiten jakitea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna.
- Autoa edukitzea.

BALORATUKO DA:

- Publizitatean eta arlo komertzialean eskarmentua izatea.
- Durangaldekua izatea.

Curriculumak astekaria@anboto.org helbidera bidali irailaren 26a baino lehen.

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 29an, 23:30ean, lurretako jaietan

Nevadah

lurretako jaietan San Migel egunean joko du Durangaldeko Nevadah taldeak. lazko urte amaieran plazaratu zuen lehenengo disko kantak eskainiko dituzte, lurretako plazan. Bad Sound System eta Willis Drummond taldeek ere joko dute gau horretan.

Musika

:: BERRIZ

IRAILAREN 28an

20:00etan, Nebrashka, Kultur Etxean.

IRAILAREN 30ean

20:00etan, Gontzal Mendibil, Mikel Deunaren ermitan.

:: DURANGO

IRAILAREN 28an

20:00etan, Kantulagun, Plateruenean.

:: ZALDIBAR

IRAILAREN 29an

22:00etan, Drop! + Worth It + Golem + Appraise, Gaztetxean.

Jaiak

:: ZORNOTZA (Dudea)

IRAILAREN 28an

18:30ean, Jaien hasiera, kanpai hots eta txapliguekin.

19:00etan, Triki pintxo poteoa.

20:00etan, Zornotzako ikasleen abesbatza.

IRAILAREN 29an

11:30ean, Txosnen irekiera.

14:30ean, Bertoko nagusientzat bazkaria, Kanbio jatetxean.

20:00etan, Tortilla txapelketa.

20:30ean, Mus txapelketa azkarra.

22:30ean, Dantzaldia DJ Bullekin, eta banakako bolo txapelketa.

IRAILAREN 30ean

10:00etan, Auzoko ermitetatik ibilaldia.

12:00etan, Puzgarriak eta umeentzako jolasak.

13:00etan, Igel txapelketa.

14:00etan, Makailau txapelketa.

17:00, Xaibor.

17:30ean, Binakako briska txapelketa.

19:30ean, Iberiar produktuen apostuak.

21:00etan, Afari popularra, Kanbio jatetxean.

23:00etan, Mexikar gaua Puro Relajo taldeagaz. Ondoren, DJa. Atsedendian, moztorro onenaren saria.

URRIAREN 1ean

12:00etan, Meza nagusia. Ondoren, luntxa eta animalien erakusketa.

17:00etan, Bingoa.

19:00etan, Parrillada, txokolatada eta zestaren zotz egitea.

20:30ean, Jaien amaiera txapliguekin.

Antzerkia

:: DURANGO

IRAILAREN 29an eta 30ean

20:00etan, Deshakespeareazioa, San Agustin kulturgunean.

:: ELORRIO

IRAILAREN 24an

17:00etan, Marixurrike eta hiru hartzak, Arriolan.

20:30ean, La novia de Don Quijote, Arriolan.

IRAILAREN 29an

20:30ean, Sal marina, Arriolan.

Erakusketa

:: BERRIZ

IRAILAREN 27ra arte

'Gu ere errefuxiatu izan ginen, Kultur Etxean.

:: DURANGO

URRIAREN 22ra arte

'Durango jaietan' argazki erakusketa, San Agustingo sarreran.

:: ELORRIO

IRAILAREN 29ra arte

Durangaldeko Artisten Elkartearen erakusketa, Iturri kultur etxean.

:: ZORNOTZA

IRAILAREN 30era arte

Bosteko erakusketa, Zelaieta zentroan.

Lehiaketa

:: ZORNOTZA

IRAILAREN 29an

19:30ean, III. Kinerally film laburren lehiaketaren hasiera, Zelaieta zentroan.

Berbaldia

:: ABADIÑO

IRAILAREN 25ean

17:00etan, gazteentzako Abadiño Sex zerbitzuaren aurkezpena, Pino plazan.

18:30ean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aurrerakinaren berri emateko berbaldia, Errota kultur etxean.

:: DURANGO

URRIAREN 3an

18:15ean, Juan Luis Uria osasun ikuskariaren berbaldia: 'Txertoak, argiak eta ilunak', Nagusien zentroan (Pablo Pedro Astarloa 1-2).

Tailerra

:: BERRIZ

URRIAREN 4tik MAIATZAREN 30era arte

75 urtetik gorakoentzako estimulazio osorako tailerra.

:: ZALDIBAR

IRAILAREN 27an

18:00etan, ekonomia feministari buruzko saioa, liburutegi zaharrean.

Ikastaroa

:: ABADIÑO

URRIAREN 5etik EKAINERA ARTE

Irriclown elkartearen eskutik, clown ikastaroa eskainiko du Nerea Ariznabarretak. Izen-ematea: 645732391 telefonoan, eta nere. ariznabarreta@gmail.com.



ZINEMA

:: DURANGO ZUGAZA

Kingsman. El círculo de oro

• barikua **22**: 19:15-22:00
• zapatua **23**: 17:30-19:30-22:30
• domeka **24**: 17:30-19:30
• astelehena **25**: 18:30-20:30
• martitzena **26**: 20:00
• eguaztena **27**: 20:00

Ali & Nino

• barikua **22**: 22:00
• zapatua **23**: 20:30-22:30
• domeka **24**: 20:30
• astelehena **25**: 18:30-21:00
• martitzena **26**: 20:00
• eguaztena **27**: 20:00

Un lugar llamado Sr. Stein

• barikua **22**: 22:00
• zapatua **23**: 20:30-22:30
• domeka **24**: 20:30
• astelehena **25**: 21:00
• martitzena **26**: 20:00
• eguaztena **27**: 20:00

Lego ninjago pelikula

• barikua **22**: 19:15
• zapatua **23**: 18:30
• domeka **24**: 18:30
• astelehena **25**: 18:30

Lego ninjago pelikula (euskaraz)

• barikua **22**: 20:00
• zapatua **23**: 16:30
• domeka **24**: 16:30

Tadeo Jones y el secreto del rey Midas

• zapatua **23**: 17:30
• domeka **24**: 17:30

:: ELORRIO ARRIOLA

Dunkerque

• zapatua **23**: 22:00
• domeka **24**: 20:00
• astelehena **25**: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

La niebla y la doncella

• barikua **22**: 20:15
• zapatua **23**: 19:30-22:00
• domeka **24**: 20:00
• astelehena **25**: 20:15

Emoji: La película

• zapatua **23**: 17:00
• domeka **24**: 17:00

IRAILEKO AGENDA



OHARRAK

GIZARTE ONGIZATE SAILA

Zabalik honako deialdi eta Oinarri Arautzaileetarako eskaera epea:

- Emakumeen kirola sustatzeko diru-laguntzak (Herriko kirol elkarteak)
- Kirola sustatzeko diru-laguntza. Norbanako laguntza.

GU BE BAI RUNNERS-IURRETA

Denboraldi berriari hasiera: lurretako Plaza

Izen-ematea: Ibarretxe Kultur Etxea edo 19:30etan Plazan Irailak 4 / 6 / 11 / 13 / 18 / 20 / 25 / 27 (Astelehenak eta eguaztenak)

GURUTZE GORRIA

"NAGUSIEN BIDELAGUN" ELKARREKIN BERBETAN Izen-emate epea zabalik

"BELDUR BARIK JARRERA 2017" LEHIAKETA

Ikus-entzunezko adierazpen artistikoak.

NORI ZUZENDUA: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren errolatutako 12-26 urteko gazteei, ikasten edo herri horietako elkarteren batean parte hartzen dutenak.

Oinarriak: www.beldurbarik.org eta www.iurreta.eus / Tel.: 946 215 372.

**> BOTIKAK****BARIKUA, 22**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 23**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-13:30

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**De Diego**
Inixaurren 22 - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 24**
09:00-09:00**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 25**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**MARTITZENA, 26**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 27**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 28**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguzitleneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Laida, Zeian eta Josu (688. alea)**!
Hamabostean behin zoz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.**> Zorixonak, guapisima, etxeko danon partez!** Ondo pasau zure egunien eta mosu itzel bat!**> Zorionak, Elene!** Primeran ospatuko dugu asteburuen. Muxu handi bat etxeko danon partez, aitite-amama, aitatxo ta amatxoren ta bereziki, Nikoleren partez.**> Zorionak, prexioxa!** Asko maite zaittugu etxeko guztixok. Ondo pasau zure urtegunen eta San Migelak. Mua, mua eta mua**> Zorionak, Jon!** Musu asko zure 4. urtegunen, Naia eta familia guztiaren partez. Jarraitu zaren modukoa izaten, primerakoa zara! Gora gure kirolaria! Asko maite zaittugu!**> Gaur Adeik 9 urte bete ditu.** Zorionak, txapelidun! Jarraitu hain ona eta alaia izaten, eta ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat denon partez!**> Elaiak eta Onetak 11 urte betetzen dituzte irailaren 23an.** Musu potolo bat eta jarraitu horren jator eta alai!**> 1970ean jaiok, San Francisco eta Santa Susana eskoletako ikasleak zapatuan alkartu ginan, kontu-kontari eta barrezka egun polit bat pasatzeko.**

Anbotorenlagunak

UNAMUNZAGA-ETXEBARRIA HORTZ KLINIKAK emandako hortz eskuila elektrikoa zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

AURREKO ASTEKO ZOZKETAREN IRABAZLEA GARAIKO LANDETXEAK emandako 2 pertsonentzako gau bateko egonaldia, gosaria barne

JON AIZPURUA ESPIN

ZORIONAK!

Anboto Komunikabideak
 @anboto
 @anbotokomunikabideak
 Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

b. unamunzaga e. etxebarría

“Moda nire egunerokotasunean txertatutako zerbait da; bizitzeko era bat”

Modari buruzko bloga sortu gura du Lauzirikak, 'El alma de mi vestidor' proiektuaren barruan

> AKUILUA Aitziber Basauri
“Oso sentimentalak izanik, jantzigelagaz nire arima, nire egunerokotasuna erakutsi gura dut”. Hala dio Aintzina Lauzirikak hasiberri duen 'El alma de mi vestidor' proiektuaz galdetzean. Modari buruzko bloga sortu gura du eta sare sozialetan murgilduta dabil maiatzetik. Tendentziak bideratzen dituzten iritzi sortzaile bihurtu diren blogarien artean lekutxo bat izan gura luke.

Nola hasi zinen proiektuagaz?
Zentzua dudanez geroztik gustatu izan zait moda, eta ikusi dut lagunartean, inguruan, erreferente moduan hartu izan nautela batzuek moda kontuetan. Pauso hau eman dut orain, baina modarekiko grina hori bideratu guran formazioa jaso dut aurretik: tendentziei buruzko ikastaroak egin ditut, *personal shopper* ikasi dut... Nire bokazioa eta ilusioa da hau, eta ikusi dut oraintxe zela momentua; orain edo inoiz ez. Hori bai, horrela ikusgai jartzeak bertigo pixka bat ere ematen du!

Zein duzu helburua? Erronka?
Ez dut helburu finkorik. *Personal shopper* moduan lan egin gura nuke, izakera kontuan hartuta eta bakoitzaren premien arabera jantzteko moduak proposatzea gustatzen zait-eta. Apurka-apurka hasi gura dut, facebook eta instagram bitartez ezagutu nazaten, jarraitzaileak lortu... Hori guztia pixka bat finkatuta, blog bat sortzea da asmoa. Asko zaindutako zerbait egin gura dut. Lau hilean 1.000 jarraitzailetik gora lortu ditut

instagraman, eta facebooken 600etik gora. Oso pozik nago.

Zer da 'personal shopper'?
Ekitaldiatarako janzkera aproposa edo armairuaren hondoan eduki beharreko oinarritzko arropa aukeratzeko laguntzen du, adibidez. Gorputzaren formari ondoen datozkion arropak ikusteko, morfologia azterketa egiten dute; eta ondoen egokitzen zaizkigun koloreak ikusteko, kolorimetria azterketa ere bai. Soineko bati zenbat irtenbide eman ere aztertzen du.

Aldizkari edo marken bakoitza gehiago, blogetik erakusten dituzte tendentziak?
Diseinatzaileek sortutako pasareletako moda hori bakoitzak islatzen duen moduak du arrakasta. 'Street style' a dago modan, pasarelako moda hori hartu eta bakoitzak kalean islatzea. Hori islatzen dute blogariek.

'Cachea' igotzen du jarraitzaile kopuruak.
Bai. Diotenenez, 5.000 jarraitzailetik gora dituzunean hasien dira harremanetan jartzen dendak edo arropa markak. Dena den, jarraitzaileak erosi egin daitezke. Horrelakorik ez dut egin gura, azkenean dena agerian geratzen da-eta. Ez dut pentsatu etekinik ateratzea, baina gustatzen zaizun horretatik bizimodua ateratzea goren da.

Modari begira bizi gara?
Bai, maila handiangoan edo txikiangoan. Saiatzen gara ondo jantzen, bakoitza bere estiloan.



Zer da zuretzat moda?
Nire egunerokotasunean txertatutako zerbait da. Bizitzeko era bat, jarrera bat.

Baduzu erreferentziarik? Blogariren bati jarraitzen diozu?
Asko! Hala ere, soineko bati bost edo sei erabilera desberdin ematea gustatzen zait niri. Trebezia hori dut. Ez naiz konjuntio bakarrekoa. Batetik edo bestetik, ideiak hartzen ditut. Moda jolas bat ere bada-eta niretzat, dibertitzen nauena.

Modara joatea garestia da?
Ez. Gaur egun aukera asko daude eta merkeak diren arropak garestiagoak diren osagarriekin nahastu genitzake, adibidez. Oso ondo jantzita joan zaitzke diru asko gastatu barik.

Asko zaintzen duzu irudia?
Ez dut arazorik kopeta bategaz, makillatu barik eta zapatilekin irteteko. Baina gustatzen zait irudia zaintzea: azala, ilea, arropak, elikadura... asko zaintzen ditut. Sare sozialetan ere, argazkietan, asko zaintzen dut.

Jantzi asko dituzu armairuan?
Asko, bai. Baina urteetan landutako jantzigela da. Denetarik dago, aipatu dudana nahasketa hori islatzen du. Baina inbertsio txiki bat beti egin behar da: poltsa on bat, zapata pare bat...

Badago ezinbestekorik?
Traje beltz bat, zapata beltz batzuk eta 'little black dress' deritzona: edozein ekitaldiatarako aproposa den soineko beltza. Hala ere, bakoitzaren bizimoduaren arabera ere bada.

LAUHORTZA

JON ANDER RAMOS MARTINEZ

Historialaria



Banderak

Konturatu orduko oporrak igaro eta eskola atarian bueltan gaude berriro ere. Udarako lanak eginda edo egin gabe, hobereena bueltan egotea baita. Opor osteko balizko krisialdiarekin batera bizitakoarekin oroitzapenak, besterik ez. Eta ariketa hori egiten harrapatu nau zutabe honek.

Katalunian zehar, herri txiki zein hiri handietan, leihotako banderek bereganatu dute nire arreta: tamaina eta era guztietako senyerak non-nahi. Oztopo guztien gainetik aurrera doan herri baten seinale.

Banderez, nortasunaz edota eskubideez ari garen honetan, burura datorkit oporraldien azken etapa. Karreristen unibertsoan nortasunaz hausnartzeko keinu bat ere bizi izan dut: jatorri amerikarra duen talde batek gure historiari errepasoa egiteko beta eskaintzen digu. Ikurrinaren jatorriaz ari naiz. Euskaldunen ikur bilakatuko zen bandera ez zen Euskal Herrian sortu, baizik eta Amerikan erroturik zegoen euskal kolektiboak bultzaturik. Horrela sortu zen gure lehen bandera, 1881. urtean. Harrezkerotik, denbora dezente pasatu arren, XXI. mendean euskal nortasunari bere lekua egin zaio txirrindularien munduan. Eta horretan, amerikanoak berriro ere aitzindari, Trek-Segafredoko autobusean ikurrina ikusgai. Beste hainbat nazionalitateekin batera, ziklista euskaldunek beren koloreak ondoan (autobusean zein maillotean).

Hori dira azken finean, kolore desberdineko zapiak, anitzak bezain garrantzitsuak, bakoitzak berea. Kanpokoak zein bertakoak errespetuz bizi eta onartu beharreko banderak.



Elorrioko Txintxirri Ikastolan
ALVARO BEÑARAN



**JOLASAREN GARRANTZIA
ETA HONEN ISLADA
HAURRAREN GARAPENEAN**

MINTEGIA Urriaren 7an eta 8an
7an 9:00-14:00/16:00-18:30 eta 8an, 9:00-13:30
Bazkideak: 60€, Ez-bazkideak: 80€

Izena emateko: 94 658 22 61 edo idazkaritza@elorriokoikastola.eus
Izena emateko azken eguna urriaren 4a

